eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte

**GRADU AMAIERAKO LANA**

# GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOAREN 2015-2018 LAU URTEKORAKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

**Egilea**

Eizagirre Erguin, Lore

**Zuzendaria**

Romaratezabala Aldasoro, Estibaliz

2013-2014. ikasturtea

2. deialdia

# AURKIBIDEA

1. Sarrera 4
2. Gipuzkoako Surf Federazioa eta plan estrategikoa 5
2.1. Gipuzkoako Surf Federazioaren egoera 5
2.2. Plan estrategikoa 5
2.3. Plan estrategikoaren eragina 6
3. Metodologia 8
4. Diagnostikoa 10
4.1. Kanpo analisia 10
4.2. Barne analisia 12
4.3. Amia analisia. Gipuzkoako Surf Federazioaren azterketa orokorra 28
5. Lehentasunak zehaztea 32
5.1. xedea 32
5.2. Ikuspegia 32
5.3. Baloreak 32
5.4. Sistema Egokitua 33
6. Jardueren metodologia 41
6.1. Planak 41
6.2. Programak 42
6.3. Proiektuak 46
6.4. Jarduera metodologikoaren laburpena 77
7. Exekuzioa 79
8. Ebaluazioa 95
9. Erreferentzia bibliografikoa 98
10. Eranskinak 100

# IRUDI AURKIBIDEA

Irudia 1: Demin-en gurpila edo PDCA zikloa 8
Irudia 2: Gipuzkoaren mapa fisikoa (moldatua) 10
Irudia 3: Euskal Herriko Surf Gida. Gipuzkoako olatuak (moldatua) 11
Irudia 4: Euskal Herriko Surf Gida. Lekuen eta olatuen izenak (moldatua) 11

Irudia 5: Kirol Eragileak 12
Irudia 6: Gipuzkoako Surf Federazioaren organigrama 17
Irudia 7: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta I 80
Irudia 8: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta II 80
Irudia 9: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta III 81
Irudia 10: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta IV 81
Irudia 11: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta V 82

## TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: 2013. urtean lizentziei dagozkien kuotak 14
Taula 2: GSFren gastuak, sarrerak eta balantzea 15
Taula 3: Diziplinekiko federatu kopurua 18
Taula 4: Surfboard diziplinari dagozkion proiektuak 20
Taula 5: Bodyboard diziplinari dagozkion proiektuak 21
Taula 6: Longboard eta Stand Up Paddle diziplinei dagozkien proiektuak 22
Taula 7: GSFren proiektuen partaideak sektore ezberdinetan 23
Taula 8: GSFren ekintzen gastuak eta sarrerak 26
Taula 9: AMIA analisia 28
Taula 10: sistema egokituaren puntuazioa 40
Taula 11: Jarduera metodologikoaren laburpena 78

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa1: lizentzia kopurua azken lau urtetan zehar 18
Grafikoa 2: diziplinekiko federatu kopurua 19
Grafikoa 3: Surf diziplinako ekintzetan parte hartzen dutenen arteko portzentajeak 24

Grafikoa 4: Federatuen artean parte hartzen dutenen eta hartzen ez dutenen portzentajeak 25

Grafikoa 5: Parte hartzaileen arteko sexuaren portzentajeak 25

Grafikoa 6: Gipuzkoako Surf Federazioaren proiektuen mozkinak 26

# 1. SARRERA

Surfaren inguruan 15 urteko esperientzia izateak une gozo eta mingarriak bizitzeko aukera ematen du. Horrela, esperientzia hauek eta baita jasotako formakuntzak ere (Heziketa Fisikoan irakaslea eta Jarduera Fisiko eta Kirolaren zientzian Graduatzear) pixkanaka surf mundua jarduera gisa aberastu eta hobetzeko ekintzak antolatzeko beharra eta gogoa beste kide batzuekin konpartitzera eramaten dute; horren adierazgarri izan da zazpi urtez Surf Eskolan irakasle gisa aritzea.

Baina Gipuzkoako Surf Federazioko idazkaritza postutik ekintzak antolatzea ez ezik federazioaren barne egitura ere antolatzeko beharra dagoela ikusten da. hori dela eta *Gipuzkoako Surf Federazioaren 2015-2018 Lau Urtekorako Plangintza Estrategikoa* egitea erabaki zen, aurrera begira bai federazioarentzat eta baita Gipuzkoako surfarentzat onuragarria eta erabilgarria izan zitekelakoan.

Hortaz, GSFri bideak markatzen laguntzea eta arlo ezberdinetan hobekuntzak proposatzea helburu duen Gradu Amaierako Lana da honako dokumentu hau. Horretarako, graduan zehar ikasitako eta autore ezberdinen bidez ziurtatutako jakintza eta kudeaketa tresna ezberdinak erabili dira.

Lehenik eta behin federazioa bera nola dagoen gainetik aztertu da eta ondoren plan estrategikoak, berak, dituen atalak (diagnostikoa, lehentasunen zehaztea, jardueren metodologia, exekuzioa eta ebaluazioa) metodologian azaltzen dira.

Jardueren metodologiaren atalean Jarduera Fisiko eta Zientzien Graduan ikasitakoagatik eta esperientziagatik Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plana eta Kudeaketa Plana izan dira gehien sakondu diren atalak. Hala ere, lan hau Zuzendaritza Batzordean eta Batzar Orokorrean aurrera eramatea onartuko balitz, denbora gehiagorekin guzti honekin bat datorren Finantza Plan sakonagoa egitea garrantzitsua izango litzateke. Baita Marketing eta Komunikazio Plana ere.

Dena den, lan hau errealitatean martxan jartzeko asmoarekin egin da.

# 2. GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOA

## 2.1. GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOAREN EGOERA

2013. urte arteko GSFren funtzionamenduan hainbat hutsune detektatu ziren eta aldaketa baten beharraren ustean 2013ko GSFko ez ohiko hauteskundeetan talde berria aurkeztu eta indarrean jarri zen federazioa beste modu batera kudeatzeko intentzioz. Honakoak dira federazioaren funtzionamenduan detektatutako oztoporik nabarmenenak:

Lehenik eta behin, epe ertain zein luzeko arazoak aurreikusteko gaitasunik ezaren menpe, egunez egunekoari aurre egiteko joera zuen. Urteetan pertsona bakarra egon izan da guztiaren gidari, edo pertsona honek delegatutako norbait (normalean pentsaera berdintsukoa). Nahiz eta federazioa ofizialki talde batez osatua egon (presidentea, presidenteordea, diruzaina, idazkaria eta bokalak), proiektu ezberdinak pertsona honen esperientzian oinarriturik egon izan dira, honek urteetan aldaketa gutxi egotea eragin du.

Federazio asko dira egunerokotasunean funtzionatzen dutenak, helburu argirik gabe nora iritsi nahi duten ondo zehaztu gabe; eta gutxi dira aldiz, ekintzekin zer lortu nahi duen adierazten duten dokumentuak dituzten erakundeak, esaterako Plan Estrategiko batekin, urteko planak edota kirol proiektu bat. (Bujanda, 2004)

Arestian aipatu bezala, batzorde berria kalitatezko kudeaketa baten bidez funtzionamendu egokia emateko asmoz ari da lanean eta horretarako 2015-2018 urte bitarteetarako plan estrategikoa garatzea erabaki du.

## 2.2. PLAN ESTRATEGIKOA

Kaufmanek (1973) dioenez, plangintza zer egin behar denez baino ez da arduratzen, ondoren bere ezarpenerako erabaki praktikoak hartu daitezen.

Eta Kaufmanek dioenaren ildotik, erakundearen kudeaketa egoki eta eraginkor bat urte batzuetarako ildo batetik eramateko entitateak adostuta ezartzen duen

dokumentuari plan estrategikoa deitzen zaio (Bujanda, 2004). Zehatzago esateko, Plan Estrategikoan entitateak ingurunea aztertzen du (diagnostikoa); horren aurrean epe laburrerako, ertainerako eta luzerako helburuak ezartzen ditu; helburu estrategikoak aukeratzen ditu, gauzatuko diren proiektua eta programak zehazten ditu; helburu eta proiektu horien garapenerako baliabideak esleitu; lor daitezkeen helburuak izendatu; eta jarraipen eta berritze sistema bat ezarri (ebaluazio-berrelikadura). Azken finean, lortu nahi dena definitu eta nola lortu nahi den adierazten du Plan Estrategikoak.

## 2.3. PLAN ESTRATEGIKOAREN ERAGINA

Erakunde serio, moderno, arrazional, metodiko eta parte-hartzailea eskatzen du plan estrategiko bat gauzatzeak. (Bujanda, 2004)

Plan Estrategikoak erakundearen ekintza guztiak markatuko dituen ildo nagusiak eta helburuak ezarriko ditu, eta honek erakundeari buruzko gogoeta sakona egitea eskatzen du. Horrez gain, helburuen gauzatzea eskainiko duen informazioa eskuratuko da, eta honek gauzatzen ari den lanaren jakintza handiagoa emango du, kasu negatiboan helburuak edo metodoak (programak eta proiektuak) berrorientatzeko aukera emanaz (Bujanda, 2004).

Modu honetan, GSFko agente guztiek norantz doazen (planifikatutako helburuak) jakitea ahalbidetzen da, denek ildo beretik aurrera egiteko eta ez bakoitza bere aldetik (Bujanda, 2004).

Bestalde, Sainz de Vicuñak (2012) Plan Estrategikoaren gauzatzeak beste onura batzuk ere badituela gogorarazten du:

- Ekintzen koordinazioa hobetzen du.
- Espero diren aldaketa eta garapenak identifikatzen ditu.
- Federazioa aldaketetara prestatzen laguntzen du.
- Espero gabeko ekintzen aurrean erantzun irrazionalak gutxitzen laguntzen du.
- Federazioaren helburuen gatazkak murrizten ditu.
- Komunikazioa hobetzen du.

- Zuzendaritza Batzordea pentsaraztera behartzen du etorkizunaren aurrean.
- Giza baliabide eta baliabide ekonomikoetan kudeaketa hobea ahalbidetzen du.

# 3. METODOLOGIA

Planifikatze prozesuaren aplikazioa ez da kasu guztietarako baliagarria den prozesu zurrun eta estereotipatua, hau da, kasu guztietarako planifikazio mota berdinak ez du balio. Horregatik kasu bakoitzerako planifikatzeko modelo egokiena aukeratu behar da (Mestre, 2004).

Hala ere, bada modelo gehienek jarraitzen duten eskema orokor bat.Deming-ek 1950ean lehen aldiz Japonian, kalitatearen erabateko kontrola helburu izanik, proposatu zuen PDCA (Plan Do Check Act) zikloa hain zuzen ere. Lehenik eta behin planifikatu egiten da (plan). Ondoren planifikatutako ekintza eta eginkizunak exekutatu (do). Jarraian egin dena ebaluatu (check). Eta azkenik ebaluazioan ateratako ondorioetatik helburu berriak jarriz aktuatu egiten da (act) (Ikus 1. irudia). Behin zikloa bukatu ondoren garrantzitsua da berriz hasi eta hobekuntza prozesu berriari ekitea. Horrela lortuko baita prozesuen, produktuen eta zerbitzuen hobekuntza (Grima, Pozueta, Prat, Solé & Tort-Martorell, 1997).




Irudia 1: Demin-en gurpila edo PDCA zikloa (Grima, Pozueta, Prat, Solé & Tort-Martorell, 1997)

Ziklo hau oinarritzat hartuta planifikatzaile bakoitzak bere formakuntzaren, bizipenen eta irizpideen arabera bere prozesu partikularra garatuko du.

*Gipuzkoako Surf Federazioaren 2015-2018 lau urtekorako plangintza estrategikoa*-ren egitura egiteko erabili den modeloa Mestrek (2004) proposatutako kirolaren planifikazioaren protokolo baten proposamenaren egituran oinarritu da. Honela, kirolaren planifikazio protokoloak ondorengo atalak jaso behar ditu:

- Diagnostikoa
- Lehentasunak zehaztea
- Jardueren metodologia
    - Planak
    - Programak
    - Proiektuak
- Exekuzioa
- Ebaluazioa

Diagnosi fasean federazioaren egungo egoera ezagutu eta bertara nola iritsi den aztertu (federazioaren inguruko kirol ohiturak eta oraingo egoeraren eskaintza eta eskari orokorrak) eta arazoak identifikatzen dira. Horretarako datu bilketa, galdeketak, inkestak eta AMIA analisia egiten dira (Mestre, 2004).

Behin diagnosia egin ondoren planikazioa noraino hel daitekeen zehaztu behar da, hau da, federazioak duen xedea, ikuspegia eta baloreak markatu ondoren helburu orokorrak zehaztu arazoen larritasunaren araberako lehentasunaren ordenean. Honetarako sistema egokitua erabiliko da (Mestre, 2004).

Jarraian, jardueren metodologian sartuaz, aipatutako xedeari dagozkion planak eta beraien azpi-xedeak, programak eta beraien helburuak, eta proiektuak eta beraien SMART (Specific Measurable Assignable Realistic Time-Based) helburuak zehazten dira (Mestre, 2004).

Hau guztia egina dagoenean proiektu bakoitza martxan jartzen da. Azkenik prozesu guztia eta proiektu bakoitza kontrolatua izango da emaitzak ebaluatuaz. Honetarako proiektu bakoitzarentzat ezarritako SMART helburuak emaitzekin konparatuko dira (Mestre, 2004).

# 4. DIAGNOSTIKOA

Federazioaren egungo egoera aztertu eta bertara nola iritsi den aztertzen da atal honetan.

## 4.1. Kanpo analisia

### 4.1.1. GIPUZKOAREN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Gipuzkoa Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetatik txikiena da. Iparrean Kantauri itsasoarekin egiten du muga, hegoaldean, Araba eta Nafarroarekin, mendebaldean, Bizkaia eta Arabarekin eta ekialdean, Nafarroarekin eta Pyrénées Atlantiques departamentu frantsesarekin, non Lapurdiko lurralde historikoa dagoen. Bidasoa ibaia kilometro batzuetan zehar frantziar estatuarekiko muga da (Ikus 2. irudia).

Bere kokapen latitudinala, eremu epelean bete-betean, eta itsasoari irekita egotea bere ingurune fisikoa baloratzerakoan faktore erabakigarriak dira eta horrek Gipuzkoa gehienbat ozeanikoa den lurralde bilakatzen du, penintsulako lurren gehiengoaren antza baino ipar-mendebaldeko Europaren antza handiagoa izanik.



Irudia 2: Gipuzkoaren mapa fisikoa (moldatua)

Bere azalera 1.980 Km²-koa da eta biztanleria 688.708 pertsonakoa (2005. urtean); horrek esan nahi du biztanle-dentsitatea 359 biztanle kilometro karratukoa dela 88 udalerritan.

Bere mugek 306 km-ko luzera dute, horietatik 212 Km lurra dira eta 94 km kosta (Gipuzkoako Batzar nagusia, 2012).

### 4.1.2. SURF EGITEKO LEKUAK

Larrañagak eta Troitiñok (2013) egindako *Euskal Herriko Surf Gida*-ren arabera Gipuzkoan, surf hastapenerako, olatu handietarako zein tekniko-taktikoki maila dutenek disfrutatzeko aukera ematen duten leku ezberdinak aurki ditzakegu (Ikus 3. eta 4. Irudiak).




Irudia 3: Euskal Herriko Surf Gida. Gipuzkoako olatuak (moldatua)

Olatu eta lekuen izenak:

1. Alkolea / ALKOLEA
2. Puntaendata / ENDATA MUTURRA
3. Portutxiki / PORTUTXIKI BRANKA
4. Elorriaga / ELORRIAGA BRANKA
5. Kanaleko ezkerra / SANTIAGO-LAPARI
6. Sorginetxe / AITZANDI MUTURRA
7. Itxaspe / ITXASPEKO BRANKA
8. Itziarko ezkerra / SAKONETA BRANKA
9. Arantzazpi / ELORRIAGA BRANKA
10. Itzurun / ITZURUN HONDARTZA
11. Santio / SANTIO HONDARTZA
12. Orrua / ORROAGA SENOTIA
13. Izuztarri / IZUZTARRI MUTURRA
14. Aitzpurupe / AITZPURUPE SENOTIA
15. Gaztetape / GAZTETAPE HONDARTZA
16. Izarraiz / IZARRAIZ MUTURRA
17. Karramarro / UBIRI SENOTIA
18. Karramarro eskuina / UBIRI SENOTIA
19. Balearri / BALEARRI
20. Zarautz / ZARAUZKO HON-
21. Orio / ANTILLA HONDARTZA
22. Agiti / AGITI
23. Kontxa / ONDARRETA-KONTXA HONDARTZA
24. Urumea / URUMEA
25. Zurriola / ZURRIOLA HONDARTZA
26. Espi / HONDARRIBIA HONDARTZA
27. Kaño / BIDASOA-KAIPE

Irudia 4: Euskal Herriko Surf Gida. Lekuen eta olatuen izenak (moldatua)

## 4.2. Barne analisia

### 4.2.1. ELKARTEAK

Eusko Jaurlaritzako kirol erakundeen erregistroan (2014) 17 elkarte daude inskribatuta Gipuzkoan lehenengo modalitate bezala surfa dutenak.Hauez gain, surfa modalitate nagusitzat ez duten 9 elkarte gehiago ere inskribatuta daude.

Hauetatik, GSFrekin kontaktuan eta aktiboki martxan dauden elkarteak 16 dira (GSF, 2014c). Gainontzekoek ez dute inolako harremanik GSFrekin eta ez da beraien funtzionatzeko modurik ezagutzen.

### 4.2.2. BALIABIDE EKONOMIKOAK

GSF nagusiki, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzetan oinarritzen da proiektuak gauzatzeko. Baina, Fomento San Sebastian,babesle pribatu eta lizentziatatik ere jaso izan ohi du dirua.

#### 4.2.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirolaren departamentuaren eginkizunetako batzuk dira “eskola kirola eta guztiontzako kirola”, “kirol ekipamenduaren sustapena eta arrazionalizazioa” eta “lurraldeko federazioak eta kirol elkarteak” (Gipuzkoako A.O., 2012). Eginkizun hauek betetzeko eta Kirol Zuzendaritza organoaren funtzioak bete ahal izateko federazioekin zein beste erakundeekin harremanak mantentzen ditu Foru Aldundiak (Ikus 5. irudia).




Irudia 5: Kirol Eragileak (Gipuakozko Foru Aldundia, n.d.)

Beraz, aipatutako eginkizunak lortzeko federazioei laguntzak, bekak eta diru laguntzak ematen ditu programa ezberdinetan antolatuta. Hain zuzen ere, programa bakoitzari dagokion justifikatutako gastuen erdia ematen du Foru Aldundiak.

Honakoak dira GSFk jasotzen dituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014):

- *Gipuzkoako kirol federazioen finantzaketa.* Diru laguntza honekin funtzionamenduko gastuen erdiak kubritzen dira. Gainontzekoa lizentzietatik ateratako diruarekin ordaintzen da.
- *Gazteen artean kirola sustatzeko plana.*Diru laguntza honekin eskola kirolaren programako gastuak kubritzen dira. Surf eskola bakoitzean egindako ikastaroan ikasleko 4€ kubritzen ditu. Gainontzekoa ikastetxeek ordaintzen dute.
- *Aparteko lehiaketak antolatzea.* Diru laguntza honekin Ikastxiki zirkuituko bi txapelketen gastuen erdia kubritzen du.

4.2.2.2. <u>Babesle Pribatuak eta Fomento San Sebastian</u>

Horrez gain, badira beste entitate batzuk proiektu konkretuak diruz laguntzen dituztenak beraien helburu zehatzak lortu asmoz. Esaterako, Fomento San Sebastian-ek 1500€-ko diru laguntza ematen du “Surf City edo Donostia Winter series Junior Challange” txapelketa aurrera eramateko. Eta Rip Curl markak Ikastxiki zirkuituko Donostiako proba babesten du 3000€-ko diru laguntza emanaz (GSF, 2014a).

4.2.2.3. <u>Lizentziak</u>

Azkenik, federatu bakoitzaren lizentziatik ere lortzen da diru sarrera. Hau da, lizentzia bakoitzaren zati bat seguruak eramaten du eta gainontzekoa Euskal Herriko Surf Federazioaren (EHSF) eta GSFren artean banatzen da (Ikus 1. taula) (EHSF, 2013).

Taula 1: 2013. urtean lizentziei dagozkien kuotak.

ELKARTEETATIK FEDERATUAK

| | Liz. kopurua | Kuota | Inporte brutoa | L. kostua | Inporte netoa |
|---|---|---|---|---|---|
| **18 urtetik gorakoak** | 758 | 60 € | 45.400€ | 30,20€ | 29,80x758=22.588,40€ |
| **14 eta 17 urte bitartean** | 119 | 50€ | 5.950€ | 30,20 | 19,20x119= 2.356,20€ |
| **14 urtetik beherakoak** | 60 | 45€ | 2.700€ | 19,20 | 25,80X60= 1.548,00€ |

LIBREKI FEDERATUAK

| | Liz. kopurua | Kuota | Inporte brutoa | L. kostua | Inporte netoa |
|---|---|---|---|---|---|
| **18 urtetik gorakoak** | 564 | 70€ | 39.480€ | 30,20€ | 39.80x564=22.447,20€ |
| **14 eta 17 urte bitartean** | 41 | 60€ | 2.460€ | 30,20€ | 29,80x41= 1.221,80€ |
| **14 urtetik beherakoak** | 12 | 55€ | 660€ | 19,20€ | 35,80x12=429,60€ |
| | | | | | |
| **Guztira** | **1.554** | | | | **50.591,20€** |

Aseguruak jasotzen duen zatia kenduta 50.591,20€ dira guztira federazioak lizentzietatik jasotzen duena. Hau, esan bezala, EHSFren eta GSFren artean banatzen da. Beraz bakoitzak 25.295,60€-ko sarrerak izan ditu 2013. urtean.

Kasu honetan,EHSF da lizentzien kuota pasatzeaz arduratzen dena eta ondoren GSFri ematen dio dagokion zatia. Azken urteetan EHSFk izan dituen arazo ekonomikoen ondorioz GSFk urtean urtekoa kobratu beharrean atzeratuta eta pixkanaka kobratuz joan da (EHSF, 2013).

4.2.2.4. Gastuak, Sarrerak eta Balantzea

2014ko aurrekontuen arabera GSFn sortuko diren gastu eta sarrera guztiak 2. taulan ikus daitezke (GSF, 2014a).

Taula 2: GSFren gastuak, sarrerak eta balantzea

| KONTZEPTUA | GASTUAK | SARRERAK | BALANTZEA |
|---|---|---|---|
| **Guztirakoa** | 98.780,85 | 100.707,26 | 1.926,41 |
| | | | |
| **Funtzionamendua** | **17.200,85** | **36.057,26** | **18.856,41** |
| Soldatak | 9.706,20 | 00,00 | |
| Seguritate soziala | 3.406,88 | 00,00 | |
| Geroa | 48,53 | 00,00 | |
| Material informatikoa | 300,00 | 00,00 | |
| Bulego materiala | 350,00 | 00,00 | |
| Telefonoa | 600,00 | 00,00 | |
| Komisioak | 250,00 | 00,00 | |
| Dietak | 500,00 | 00,00 | |
| Asesoria | 1.239,24 | 00,00 | |
| Bestelakoa | 100,00 | 00,00 | |
| Material informatikoa | 700,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 10.761,66 | |
| Lizentziak | 00,00 | 25.295,60 | |
| | | | |
| **GS txapelketa** | **13.050,00** | **770,00** | **-12.280,00** |
| Langileak | 7.140,00 | 00,00 | |
| Azpiegitura | 2.250,00 | 00,00 | |
| Publizitatea | 1.050,00 | 00,00 | |
| Baimenak | 300,00 | 00,00 | |
| Sariak | 1.500,00 | 00,00 | |
| Bulego materiala | 60,00 | 00,00 | |
| Bestelakoak | 750,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 00,00 | |
| Babesle pribatuak | 00,00 | 00,00 | |
| Izen emateak | 00,00 | 770,00 | |
| | | | |
| **Ikastxiki txapelketak (2)** | **9.200,00** | **6.000,00** | **-3.200,00** |
| Langileak | 4.760,00 | 00,00 | |
| Azpiegitura | 2.000,00 | 00,00 | |
| Publizitatea | 700,00 | 00,00 | |
| Baimenak | 200,00 | 00,00 | |
| Sariak | 1.000,00 | 00,00 | |
| Bulego materiala | 40,00 | 00,00 | |
| Bestelakoak | 500,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 2.400,00 | |
| Babesle pribatuak | 00,00 | 3.600,00 | |
| Izen emateak | 00,00 | 00,00 | |
| | | | |
| **Surf City** | **1.450,00** | **1.500,00** | **50,00** |
| Langileak | 1.000,00 | 00,00 | |
| Azpiegitura | 00,00 | 00,00 | |
| Publizitatea | 300,00 | 00,00 | |
| Baimenak | 150,00 | 00,00 | |
| Sariak | 00,00 | 00,00 | |
| Bulego materiala | 00,00 | 00,00 | |
| Bestelakoak | 00,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 00,00 | |
| Babesle pribatuak | 00,00 | 1.500,00 | |
| Izen emateak | 00,00 | 00,00 | |
| | | | |
| **Teknifikazioa** | **32.120,00** | **32.120,00** | **00,00** |
| Izen emateak | 2.970,00 | 00,00 | |
| Garraioa | 8.050,00 | 00,00 | |
| Alojamendua | 6.700,00 | 00,00 | |
| Elikagaiak | 4.150,00 | 00,00 | |
| Soldatak | 9.100,00 | 00,00 | |
| Bestelakoak | 1.150,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 16.060,00 | |
| Surflariak | 00,00 | 16.060,00 | |
| | | | |
| **Eskola kirola** | **24.000,00** | **24.000,00** | **00,00** |
| Surf eskolak | 24.000,00 | 00,00 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 00,00 | 6.000,00 € | |
| Ikastetxeak | 00,00 | 18.000,00 € | |
| | | | |
| **Kantauri Surf Liga** | 18,00 | 00,00 | **-18,00** |
| Sariak | 18,00 | 00,00 | |
| | | | |
| **Negua Sariak** | 400,00 | 00,00 | **-400,00** |
| Sariak | 400,00 | 00,00 | |

Urteko balantze ekonomikoa positiboa atera da eta honek proiektu berriak sortu edo zaharrak aldatzeko aukera ematen du (GSF, 2014d).

### 4.2.3. GIZA BALIABIDEAK

GSFn gobernu, administrazio eta ordezkaritzako organo hauek hartzen dituzte erabaki nagusiak (GSF, 2007):

- Gobernu organo bat: Batzar Nagusia
- Administrazio organo kolegiatu bat: Zuzendaritza Batzordea
- Ordezkaritza organo bat: Federazioko lehendakaria.

Hartutako erabakiei bidea eman eta aurrera eramatea erabaki diren programak martxan jartzeko idazkari bat dago antolaketa lanak eta lan administratiboak egiteko. Eta horrez gain, federazio ezberdinen kontu ekonomikoak eramaten dituen enpresa (AFEDEGI) bat ere badago.

Azkenik, programa bakoitza aurrera eraman ahal izateko behar diren langile espezifikoak ere badaude:

- Txapelketetan: txapelketa zuzendaria, epaile zuzendaria eta epaileak, txapelketako idazkaria, hizlaria, informatikoa, materialaren arduraduna eta janaren arduraduna.
- Teknifikazioan: teknikariak

Organigrama




Irudia 6: Gipuzkoako Surf Federazioaren organigrama

## 4.2.4. BALIABIDE MATERIALA

Urteetan zehar GSFk ez du materialean inbertsiorik egin. 2014. urtean honakoak dira GSFren esku dagoen baliabide materiala:

- Karpa txiki bat
- Txapelketetarako piruleta (uretatik txandan zehar denbora kalkulatzeko instrumentua)
- Sistema informatikoa
- Epaileek zuzenean puntuatzeko sei tablet
- Txapelketetarako koloretako likrak
- Bideo kamara bat
- Bulegoko materiala (ordenagailua, inpresora, karpetak, boligrafoak…)
- Bi pertsonako hiru kanpin-denda

## 4.2.5. FEDERATU KOPURUAREN ANALISIA

### 4.2.5.1. Federatu kopurua urteetan zehar

Azken urteotako federatu kopuruen datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu surfak edo federatu kopuruak 2011. urtean beherakada nabarmena izan zuela (EHSF, 2010, 2011, 2012 eta 2013):




Grafikoa1: lizentzia kopurua azken lau urtetan zehar

### 4.2.5.2. Diziplinekiko federatu kopurua

Jakin badakigu GSF diziplina ezberdinez osatua dagoela, hauek dira hain zuzen ere: Surfboard, Bodyboard, Longboard, Kneeboard eta pasa den urtean izendatu zen Stand Up Paddle (SUP). Honen arabera 2013. urteko 1554 federatuak diziplinatan nola banatzen diren ikus dezakegu ondorengo koadroan (EHSF, 2013).

Taula 3: diziplinekiko federatu kopurua

| 2013. urtea | Surfboard | Bodyboard | Longboard | Kneeboard | SUP |
|---|---|---|---|---|---|
| **Federatu kopurua** | 1352 | 151 | 43 | 0 | 8 |

Ondorengo 2. grafikoan modu bisualago batean ikus daiteke:




Grafikoa 2: disziplinekiko federatu kopurua

Surfboard diziplina da besteen artean diferentziaz gailentzen dena. Beraz, ez litzateke harritzekoa izango antolatzen diren ekintza gehienak diziplina honekin lotuta egotea. Horrez gain, ondorio aipagarria da Kneeboard diziplinan federaturik ez egotea.

## 4.2.6. GIPUZKOAKO SURF FEDERAZIOAREN PROIEKTUAK

Hasieran esan bezala GSF ondo antolatu gabeko federazio bat izan da orain arte eta horrek proiektuak unean unekoak eta federatu sektore zehatz eta murritz bati zuzenduak izatea ekarri du. Une honetan urte bete bada zuzendaritza batzordea aldatu zenetik eta jada nabari da berrikuntzaren bat. Hala ere, berrikuntzei helburuak lortzeko bidea emango dien analisia eta antolaketa plana falta zaie oraindik.

Honakoak dira GSFk 2014. urterako antolatu eta aurrera eramango dituen proiektuak (GSF, 2014b). Proiektu bakoitzaren zehaztasunak 1. eranskinean.

- Eskola kirola
- Gipuzkoako Surf Txapelketa (GS Txapelketa)

- Ikastxiki
- Teknifikazio programa
- Kantauri surf liga
- Negua Sariak
- Surf City

### 4.2.7. PROIEKTUEN ANALISI OROKORRA

Proiektuen analisi orokorra egiterakoan kontuan izan behar da GSFk surf modalitatearen barnean diziplina ezberdinak dituela. Beraz, diziplina bakoitza modu berdinean aztertuko da.

Federazioaren irizpideak, norabidea eta helburuak kontutan hartuta proiektu bakoitzak zentzua izan dezan bide ezberdinak eman daitezke ezagutzera, horrela federatu bakoitzak garbi izan dezake zein bide jorratu nahi duen eta norberaren helburuak lortzeko zer egin behar duen. Hau da, hasieran hastapenetik hasi surf munduan sartzen eta ondoren jarraipenean bi bide aukera daitezke: errendimendua edo aisia.

#### 4.2.7.1. Surfboard diziplina

Antolaketa honi begira, surf diziplinari dagozkion GSFren proiektuak 4. taulan kokatuta hutsuneak non dauden garbi ikus daiteke:

Taula 4: Surfboard diziplinari dagozkion proiektuak

| | **Hastapena** | **Jarraipena** | |
|---|---|---|---|
| | | Errendimendua | Aisia |
| **Eskola garaia** | - Eskola kirola | - Ikastxiki<br>- GS Txapelketa | |
| **Gaztaroa** | | - Teknifikazioa<br>- Surf city<br>- GS Txapelketa | - Kantauri Liga<br>- Negua Sariak |
| **Helduaroa** | | - GS Txapelketa | |

Eskola garaian (16 urtetik behera) kirol hau probatu eta lehen pausuak emateko ikastetxeekin lotura zuzena duen Eskola Kirola programa dago. Ondoren errendimendu bidea probatu nahi duenak Ikastxiki txapelketetan lehiaren lehen pausuak emateko aukera dute 16 urtetik beherako gazteek. Garai honetakoei zuzendutako aisialdiko programarik ez dago ordea.

Gaztaroan kirol honetara gerturatzen direnak ezagunek edo lagunek erakarrita izan ohi da gehienetan, taldeka. Helburua esperientzia berriak esperimentatzea izanik.Hastapen ikastaro hauek jasotzeko bidea surf eskoletara jotzea da eta sektore honetan hutsune nabarmenik ez da antzeman, hori dela eta GSFk ez du programa espezifikorik garatu. Errendimendua eta aisiari dagokienez ordea, bina programa ditu martxan GSFk.

Azkenik Gipuzkoako Surf Txapelketa (GS txapelketa), txapelketa ofiziala eta Euskadiko Kirolaren legea errespetatuz GSFk antolatu beharreko txapelketa izanik, maila guztiak hartzen ditu kontutan. Beraz, bai eskola garaian, gaztaroan eta baita helduaroan ere GS Txapelketan parte hartzeko aukera dago.

4.2.7.2. Bodyboard diziplina

Antolaketa berdinarekin, bodyboard diziplinari dagozkion GSFren proiektuak 5. taulan ikus daitezke:

Taula 5: Bodyboard diziplinari dagozkion proiektuak

| | **Hastapena** | **Jarraipena** | |
|---|---|---|---|
| | | Errendimendua | Aisia |
| **Eskola garaia** | | - GS Txapelketa | |
| **Gaztaroa** | | - Teknifikazioa<br>- GS Txapelketa | |
| **Helduaroa** | | - GS Txapelketa | |

Alde batetik GS Txapelketa dago, lehen esan bezala GSFk derrigorrez antolatu beharreko txapelketa ofiziala da. Bestalde, 2014. urtean lehen aldiz teknifikazioan bodyboard diziplina sartu dute. Gainontzean hutsune handiak nabari dira.

#### 4.2.7.3. Longboard eta stand up paddle (SUP) diziplinak

Antolaketa berdinarekin jarraituaz, longboard eta SUP diziplinei dagokien GSFren proiektua 6. taulan ikus daiteke:

Taula 6: Longboard eta Stand Up Paddle diziplinei dagozkien proiektuak

| | Hastapena | Jarraipena | |
|---|---|---|---|
| | | Errendimendua | Aisia |
| **Eskola garaia** | | - GS Txapelketa | |
| **Gaztaroa** | | - GS Txapelketa | |
| **Helduaroa** | | - GS Txapelketa | |

GS Txapelketa da GSFk diziplina hauetarako antolatzen duen proiektu bakarra.

#### 4.2.7.4. Kneeboard diziplina

GSFk ez du inongo proiekturik diziplina honi dagokionez.

### 4.2.8. PROIEKTU BAKOITZAREN PARTAIDEAK

Ondorengo taulak proiektu bakoitzaren partaide kopurua eta hau zein pertsona sektoreri zuzendua dagoen adierazten du: diziplinei dagokienez, federatuei dagokienez (guztira 1543 federatu izanik ehunekotan ere kalkulatu da) eta baita emakume edo gizonei dagokienez ere (Ikus 7. taula) (GSF, 2013).

Taula 7: GSFren proiektuen partaideak sektore ezberdinetan

| **Proiektuak** | **diziplina** | **Kopurua** | **Federatuak** | | **Sexua** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **(Pertsona)** | **(Pertsona)** | **(%)** | **(Emakumeak)** | **(Gizonak)** |
| **Eskola kirola** | Surf | 1216 | 0 | %0 | Ez dakigu | Ez dakigu |
| **GS Txapelketa** | Surf, | 119 | 119 | 1,23 | 30 | 89 |
| | Bodyboard, | 45 | 45 | 2,91 | 1 | 44 |
| | Longboard, | 8 | 8 | 0,52 | 0 | 8 |
| | SUP | 5 | 5 | 0,32 | 0 | 5 |
| **Ikastxiki** | Surf | 188 | 188 | 12,2 | 52 | 136 |
| **Teknifikazioa** | Surf | 16 | 16 | 1,62 | 6 | 10 |
| | Bodyboard | 9 | 9 | | 1 | 8 |
| **Kantauri surf liga** | Surf | 34 | 34 | 2,2 | 5 | 29 |
| **Negua Sariak** | Surf | 13 | 13 | 0,84 | 0 | 13 |
| **Surf City** | Surf | 20 | 20 | 1,3 | 4 | 16 |

Ondorengo grafikoetan modu bisualago batean ikus daiteke:




Grafikoa 3: Surf diziplinako ekintzetan parte hartzen dutenen arteko portzentajeak

Partaide gehien dituen programa, nahiz eta federaturik ez egon hauen artean, Eskola Kirola da. Programa honen helburua surfarekiko lehen urratsak ematea izanik ulertzekoa da oraindik maila honetan federaturik ez egotea. Bestalde ikastxiki gazteen txapelketek arrakasta nabarmena dute gainerako programekin alderatuta. Guztiak dira federatuak eta honek gazteetan errendimendu bidea hartzen hasi edo behintzat surfarekin lotutako ekintzetan parte hartzeko ohitura dagoela esan nahi du. Hala ere, kontutan izan behar da ekintza batzuetan parte hartzaile kopurua mugatuta dagoela, teknifikazio eta Surf City proiektuetan adibidez. Hauetan parte hartzea sustatzea baino maila tekniko-taktikoa hobetzea bilatzen baita (Ikus 3. grafikoa).




Grafikoa 4: Federatuen artean parte hartzen dutenen eta hartzen ez dutenen portzentajeak

Federatuen kopuru guztia kontutan hartuta parte hartzaileen eta parte hartzen ez dutenak alderatu dira. Egia da posible dela proiektu ezberdinetako partaideak berdinak izatea baina kopuru hau txikia denez denak batzea erabaki da. Dena dela, laurdenera ere ez dira iristen parte hartzaileen kopurua (Ikus 4. grafikoa).




Grafikoa 5: Parte hartzaileen arteko sexuaren portzentajeak

Emakumeen kasuan esan dezakegu parte hartzea oso baxua dela (Grafikoa 5).

4.2.8.1. Proiektu bakoitzaren kostua

Badakigu ekonomiak garrantzi handia izan dezakeela proiektu berriak sortzerako edo zaharrak mantentzerako orduan. Horregatik, 1. Taulan ikusi ditugun proiektu bakoitzaren gastua, diru laguntzen zein kuoten bidez lortzen diren sarrerak eta ondorioz GSFk duen kostua edo balantzea gogora ditzakegu (GSF, 2014).

Taula 8: GSFren ekintzen gastuak eta sarrerak

| | **Gastuak (€)** | **Sarrerak (€)** | **Galerak / mozkinak (€)** |
|---|---|---|---|
| **Eskola kirola** | 24.000,00 | 24.000,00 | 00,00 |
| **GS Txapelketa** | 13.050,00 | 770,00 | -12.280,00 |
| **Ikastxiki** | 9.200,00 | 6.000,00 | -3.200,00 |
| **Teknifikazio programa** | 32.120,00 | 32.120,00 | 00,00 |
| **Kantauri surf liga** | 18,00 | 00,00 | -18,00 |
| **Negua Sariak** | 400,00 | 00,00 | -400,00 |
| **Surf City** | 1.450,00 | 1.450,00 | 00,00 |

Mozkinen arabera aipatutako ondorioak argi ikus ditzakegu 6. grafikoan:




Grafikoa 6: Gipuzkoako Surf Federazioaren proiektuen mozkinak

GSFri kostu handien suposatzen dion ekimena GS Txapelketa da, babesle pribaturik ez edukitzean, funtzionamenduaren atalean sailkatzen den lizentzietako diruarekin

ordaindu beharrean aurkitzen baita. Horrez gain, gainontzeko ikastxiki txapelketek ere gastu bat suposatzen dute baina maila baxuagoan 3 txapelketetatik 1ek babesle pribatua baitauka (2014. urtean). Azkenik, Kantauri Surf Liga eta Negua Sariek dituzten gastuak oso maila baxuan aurkezten dira (Ikus 8. taula eta 6. grafikoa).

## 4.3. AMIA analisia. Gipuzkoako Surf Federazioaren azterketa orokorra

AMIA plan estrategiko baten hasiera puntua dela esan daiteke, plan estrategikoaren azterketa, garbiketa, ebaluazioa eta puntu indartsu eta ahulen aukeraketa hain zuzen ere. George A. Steiner-ren hitzetan aukerak eta etorkizuneko mehatxuak aurkitzean datza plan estrategikoa, ondoren hauek aztertu edota saihesteko (Abascal, 2004).

Taula 9: AMIA analisia

| | **Indarrak** | **Ahultasunak** |
|---|---|---|
| **Erakundea** | **Antolaketa**<br>- Zuzendaritza batzorde gaztea eta motibatua dago.<br>**Zerbitzuak**<br>**Ekonomia**<br>- 2013. urteko balantzea positiboa da.<br>**Giza baliabideak**<br>- Federatu kopurua gero eta handiagoa da. | **Antolaketa**<br>- Antolaketa orokorra berandu: urtean urtekoa, momentuan momentukoa antolatzen da.<br>- Federazioan dauden zeregin guztien arduradunak zehaztu gabe daude.<br>- Elkarte, bazkide eta federatuekin harreman gutxi.<br>**Zerbitzuak**<br>- Federatuen ehuneko handi bati ez zaio seguruaz gaindiko zerbitzu edo ekintzarik eskaintzen<br>- Koordinazio arazoak zerbitzu ezberdinen artean<br>- Ez dira Surf Federazioak hartzen dituen diziplina guztiak aintzat hartzen.<br>- diziplina guztietan hutsune nabarmena dago emakumearen partaidetzan eta ez da hau sustatzeko ezer eskaintzen.<br>- Formakuntza falta (epaile, teknikari).<br>**Ekonomia**<br>- Lizentzien sarrerak EHSFk kobratzen ditu eta ahal duenean GSFri dagokion zatia eman, azken urteetan berandu.<br>**Giza baliabideak**<br>- Langile gehiagoren beharra. |
| | **Aukerak** | **Mehatxuak** |
| **Ingurua** | **Antolaketa**<br>- Elkarteekin elkarlanean aritzeko aukera<br>- Foru Aldundia laguntza emateko prest<br>- Zerbitzuen erabiltzaileen iritzia entzun eta hobetzeko prest<br>**Zerbitzua**<br>- Antolatzen diren ekintzak kanpora begira ondo atera dira<br>**Ekonomia**<br>- Babesle pribatu gehiago lortzeko aukera | **Antolaketa**<br>- Berandu ibiltzearen arriskuz diru laguntza batzuk galtzearen arriskua<br>**Zerbitzuak**<br>**Ekonomia**<br>- Krisi ekonomikoa nabari da, batez ere babesle pribatuengan |

AMIA analisia burutu ostean (Ikus 9. taula), bertan ateratako ideietan oinarrituta federazioaren arazo nagusiak, alderdi indartsuak eta ondorioak adieraziko dira:

### 4.3.1. ARAZO NAGUSIAK

Lehenik eta behin, arazoei erreparatu aurretik, esan beharra dago 2013. urtearen maiatzean, ez ohiko moduan, Gipuzkoako Surf Federazioko zuzendaritza batzordea desegin egin zela eta aldi berean berria sortu zela. Aldaketa ere, arrazoi ezberdinak medio 8 urtetan zehar idazkari izandakoa ere aldatu zen eta azken urtean beste bi aldaketa ere egon dira idazkari postu horretan. Egoera horrela, 2013 eta 2014. urteetako ekintzen programa aurrera eramatea eta batez ere lan ildo berriak ezartzea ez da xamurra izan.

Horrela, une honetan federazioa berregiten ari bada ere, egunerokotasuneko ezjakintasunak (zein diru-laguntza dauden eta noiz eta nola eskatu behar diren ez jakiteak) aurrerapausoak ematea mantsotzen du, aurrera begirako proiektu berriengan pentsatzea ere eragotziz.

Hau guztiaren arazo nagusietako bat antolaketa falta izan daiteke. Kalkulurik ez da egin dagoen lan kopurua eta honen banaketaren artean. Eta horrela urtean urteko ekintzak ondo ateratzeko ere zailtasunak izaten dira, ekintza guztiak berandu eramaten direnaren sentsazioa izanik.

Beste arazo nagusietako bat lizentzia kopuruaren ehuneko sektore handi bati ekintzarik ez zuzentzea da. Hau da, eskaintzen diren zerbitzu edo proiektuak oso sektore txiki bati zuzenduak dira, errendimendua bilatzen dutenak hain zuzen ere (txapelketa), eta aldiz oso ehuneko zati txikia da hauetan parte hartzen duena. Horrez gain, surf modalitateari dagozkion diziplina guztiak ez dira kontutan hartzen, esaterako; bodyboard, longboard, kneedboard eta stand up paddle (SUP); azken hau duela bi urte erabaki zen surfaren diziplina bezala hartzea baina oraindik estatutuetan aldaketa egin gabe dago. Eta hauetako guztietan, bai diziplina eta sektore guztietan emakumeen hutsunea oso nabarmena dela ikus dezakegu.

Azkenik ezin dugu ahaztu une honetan dugun krisi ekonomikoak federazioari ere modu zuzenean eragiten diola. Gipuzkoako Foru Aldundia federazioaren finantziazio iturri nagusia izanik azken urteotako diru laguntza jaitsierak ekintzak mugatzea ekarri du. Baita babesle pribatuen gutxitzeak ere. Eta horrez gain, lizentzien dirua EHSFk kobratzen duenez eta honek arazo ekonomiko larriak izan dituenez, urte hasieran GSFk jaso beharreko dirua atzeratuz joan da urteetan.

### 4.3.2. ALDERDI INDARTSUAK

Lehenik eta behin, alderdirik indartsuenari egingo diot erreferentzia; zuzendaritza batzorde berriari eta honek duen federazioa hobetzeko gogoari hain zuzen ere. Zuzendaritza batzordea gaztea da eta gogotsu dago antolaketa modua aldatu eta federazioari beste nolabaiteko ikuspuntu bat emateko. Garbi dauka asko dagoela egiteko eta taldeak bere partetik ahal duena egiteko konpromisoa adierazi du orain arteko antolaketa sistema aldatu eta kontuak garbi eramateko.

Horrez gain, zuzendaritza berria dagoenetik federatu kopurua nabarmen igo da eta honek sinesgarritasuna eta indarra ematen dio federazioari. Gainera, lehen idazkariekin izandako aldaketak direla eta urtea gorabeheratsua izan dela esan badut ere urte amaieran balantze ekonomikoa positiboan atera da. Azken datu hau oso esanguratsua da, 2012. urtearen iritzirik izan ez duen auditoria bat pasa berritan egoerari buelta eman zaion adierazle baita.

Ekintzak erakargarriagoak eta aberatsagoak izan daitezen harremanak sendotzearen asmoa ikusten da, bai elkarteekin, Foru Aldundiarekin, kirolariekin eta baita GSFk antolatutako zerbitzuetan parte hartzen dutenekin ere.

Azkenik, zerbitzuei bultzada handiagoa emateko babesle pribatu gehiago bilatzea ere aurreikusten da.

### 4.3.3. DIAGNOSIAREN LABURPENA ETA ONDORIOAK

Azken 8 urteotan GSFk eraman duen antolaketa sistema aldatuaz, GSFren parte diren federatu multzo zabalagoari eskainiko zaien zerbitzuak modu garden eta

antolatu batean zabaltzea eta kontu ekonomikoak garbi eramatea da zuzendaritza batzorde berriaren helburua.

Baina taldea berria da eta ez da erraza aurrera begira jarriz proiektu berriak irudikatzea, ezta lehendik daudenak aurrera eramatea ere. Horregatik beharrezkoa ikusten da dauden proiektuak aztertu, egokiak diren ala ez kuestionatu, helburuak betetzen dituzten aztertu eta ondoren gauzatu baino lehenago antolaketa sistema egoki bat ezartzea.

Entitate hau federazio bat izanik federatu edo lizentzia dutenei, lizentzia motaren araberako zein bide jarraitu dezaketen eta nola egin dezaketen adieraztea beharrezkoa dela ondorioztatzen da:

- Kirolarien bidean, hastapenetik hasi eta ondoren jarraipenera pasa, azken hau bi bidetan banatzen delarik: errendimendu bidea (txapelketetara zuzendua) edo aisiaren bidea (jarduera libreki egiteari zuzendua).
- Epaileen bidean, formakuntza eta lanaldia.
- Teknikarien bidean, formakuntza eta lanaldia.

Eta noski, aipatutako azken puntu horretan hutsuneak dauden sektoreetako federatuei zuzendutako ekintzak egin behar direla ere aurreikusten da, esaterako: modalitate ezberdinetako federatuak (surf, bodyboard, longboard, stand up paddle eta kneedboard); sustapenerako laguntza berezia behar duten sektoreak (emakumeak, ezintasuna dutenak).

Azkenik, proiektu bakoitza eta bere antolaketa behin eta berriz ebaluatzea beharrezkotzat hartzen da modu zuzen batean aurreratzeko. Eta honetarako federazio barneko kideen iritziaz gain federatu zein ekintzen parte izan direnen iritzia ere kontutan hartuko da.

# 5. LEHENTASUNAK ZEHAZTEA

Atal honetan GSFk duen xedea, ikuspegia eta baloreak zehaztuko dira eta ondoren sistema egokitua erabiliko da AMIA analisian ateratako arazoak larritasunaren arabera ordenatu eta xede nagusia osatzeko zehaztuko diren planak hauen arabera ordenatzeko.

## 5.1. Xedea

Aurrez adostutako ekimen ezberdinak aurrera eramanez surfa Gipuzkoan garatu eta zabaltzea da GSFren xedea.

## 5.2. Ikuspegia

GSF irabazi asmorik gabeko entitatea izanik, bere baitan hartzen dituen diziplina guztiak aintzat hartuaz (Surfboard, Bodyboard, Kneeboard eta Longboard) eta entitate ezberdinen kolaborazioan (klub, kirolari, tekniko eta epaile), modu antolatuan markatutako bideak jarraituaz, Gipuzkoan surfa garatu eta zabaltzea da ikuspegia.

## 5.3. Baloreak

Berdintasuna. Oro har, honetan datza, hots, pertsona guztiek balio bera eta eskubide berberak dituzte, edozein delarik ere haren gizarte maila, egoera ekonomikoa, fisikoa, minusbaliotasuna, arraza eta sexua. Zehazki, berdintasunaren balorea erabat loturik dago ondoko kontzeptuei, eta, kontzeptu horiek ere elkarren artean oso loturik daude:

Integrazioa. Berdintasunean oinarrituriko harremanak ezartzeko ahalmena eta baldintza berdinak izan.

Elkartasuna. Besteen ekintza eta eginkizunarekiko atxikipena.

Dibertsitatea. Garrantzitsua da aintzat hartzea gizartean partaide diren pertsonek eta taldeek era askotako jarduera eta erakundeak, pentsamenduak, antolatu eta ekiteko moduak dituztela.

Tolerantzia. Gizartea osatzen duten pertsonen eta taldeen identitateek adierazitako ezberdintasun guztiak errespetatzea. Kontzeptu honek ondorengoa esan nahi du; batetik, erlijioa, politika eta kulturako sinesmenak eta iritziak errespetatu behar direla eta bestetik, arrazoi fisikoak, minusbaliotasun kontuak, gizarte baldintzak, baldintza ekonomikoak edo sexuari dagozkion baldintzak direla medio ezberdinak diren pertsonak errespetatu behar direla.

Partaidetza. Pertsona guztiek parte hartu behar dute, gizarterako ezartzen diren helburuen betekizunean.

Erantzukizuna eta konpromisoa, gizabanako edo talde orotan dagoen gaitasuna, libreki eginiko ekintzaren ondorioak eta konpromisoak aitortu eta onartzeko.

Indarkeriarik eza. Jarduera fisikoa edo kirola egiten dutenek joko garbia erakutsi behar dute. Halaber, kirol ikuskizunetara joaten diren zale eta ikusleen artean, prebentzio lana egin behar da eta indarkeriari aurre egin.

Bizi kalitatea, kirolaz eta jarduera fisikoaz baliatzea gizabanakoa bera eta euskal herritarren bizi baldintzak asetzeko iturri gisa.

### 5.4. Sistema egokitua

AMIA sistemaren bidez zehaztutako arazoen garrantzia neurtzeko sistema egokitua erabiliko da. Horrela, irtenbideak bilatzeko zein arazorekin hasi jakingo da.

Horretarako, GSFri dagozkion gai ezberdineko galdera multzoz (sozialak, administratiboak, politikoak eta kirol teknikoak) osatutako test-a sortu da eta multzo bakoitzari ondorengo irizpideen araberako balioa eman zaio. Horrela, AMIA analisian zehaztutako arazoak test-etik pasa ondoren bakoitzak izan duen puntuaketa talde

multzoari dagokion zifrarekin biderkatuko da eta denetan zifrarik altuena duenak izango du larritasunik handiena.

### 5.4.1. AMIA ANALISIAN ONDORIOZTATUTAKO ARAZO NAGUSIENAK

1. Ekintzen antolaketa falta: zereginak zehaztu, zereginei data jarri, zereginen arduradunak ezarri
2. Sektore handi bati zuzendutako ekintzarik ez: errendimendurik bilatzen ez dutenei.
3. Emakumeen parte-hartzea oso txikia
4. Diru sarreren jaitsiera

### 5.4.2. IRIZPIDEAK

Garrantzi gehien alderdi sozialari eman zaio, federazioaren helburu nagusiaren oinarria elkarteekin, federatuekin, Foru Aldundiarekin eta udaletxe ezberdinekin harremana estutzea baita, guztien esku-hartzearekin proiektu gehiago eta aberasgarriagoak sor daitezkeelako.

Ondoren, puntu bana eman zaio arlo politiko eta administratiboari. Alde batetik, politikoa oso garrantzitsua da, izan ere, federazioaren ideologia aldaketa honetan lehen aipatutako pertsona juridikoen onarpena eta parte-hartzea beharrezkoa da, onartu ezean federazioak orain arte bezala jarraituko bailuke gutxi batzuen agindupean, aurrera eramandako proiektuak gutxi batzuentzat eta isilpean. Beste aldetik, arlo administratiboa oso garrantzitsua da, egungo egoera ekonomikoarekin diru laguntza edo diru gastu handiei aurre egin ezin zaienez, eskaintzen diren diru laguntza guztiak behar bezala eskatuaz.

Azkenik, kirol teknikoari garrantzi gutxiena eman zaio gainerakoek indar gehiago dutelako.

### 5.4.3. KONTUAN HARTZEKO

0tik 4rako eskalan zenbaki bakoitzak balore hauek izango ditu:

0 = Eraginik ez edo oso eragin txikia

1 = Eragin txikia

2 = Erdizka

3 = Eragin handia

4 = Erabateko eragina edo oso eragin handia

### 5.4.4. TEST-A ARAZOEKIN APLIKATUTA

1. arazoa: Ekintzen antolaketa falta(zereginak zehaztu, zereginei data jarri, zereginen arduradunak ezarri):

| **Sozialak (1,5)** | **0** | **1** | **2** | **3** | **4** |
|---|---|---|---|---|---|
**DESKRIBAPENA:** Epaileek komunean dituzten arazo, kezka, proposamen, zalantza eta gaiez eztabaidatzeko, irtenbideak bilatzeko eta ahal den heinean epaileentzat hoberena dena borrokatzeko, Gipuzkoako surfaren onurarako den bitartean,epaileen batzordea sortzea proposatzen da.

**SMART HELBURUAK:**

a. 2017. urtean gutxienez 4 epailek osatutako Elkarteen Batzordea sortzea.
b. 2017. urtean Zuzendaritza Batzordean egongo den epaile ordezkari bat izendatzea.

**ADIERAZLE GILTZARRIAK:**

a. Batzordea sortu dela adieraziko duen 1. epaileen batzarreko akta.
b. Batzordeko ordezkaria nor izango den adieraziko duen epaileen batzarreko akta.

**ARDURADUNA:** Zuzendaritza Batzordea

**DENBORALIZAZIOA:** 2017. urtean.

**PROIEKTUA:** 4.5.1. WEB ORRIA PROIEKTUA.

**PROGRAMA:** 4.5. Web orriaren programa.

**PLANA:** 4. Komunikazio eta marketing plana

**DESKRIBAPENA: GSFren** web orria sortzea proposatzen da. Hau GSFk, GSFko elkarteek, zein GSFko federatua den edonork antolatutako zerbitzu ezberdinen informazioa zabaltzeko baliagarria izango da. Baita federatutakoen kirol emaitzak adierazteko ere.

Horrez gain, izen emateak egitea erraztuko duen formularioak erabiltzeko aukera ere izango du.

Web orriaren erabilera egokia bada eta informazioa ondo zabaltzen bada idazkariari lana erraztuko dio informazio guztia zabaltzeko telefono dei eta korreo batzuk saihestuaz.

**SMART HELBURUAK:**

a. 2015. urte hasieran web orria sortu eta martxan jartzea.
b. 2015. Urtean zehar idazkariari dei eta korreoan emandako denbora gutxitzea.

**ADIERAZLE GILTZARRIAK:**

a. Web orria.
b. OpenProj programa informatikoa.

**ARDURADUNA:** GSFko idazkaria.

**DENBORALIZAZIOA:** 2015. urtea.

**PROIEKTUA:** 4.5.1. “FEDERA ZAITEZ” PROIEKTUA.

**PROGRAMA:** 4.6. Federatzeko kanpainaren programa

**PLANA:** 4. Komunikazio eta marketing plana

**DESKRIBAPENA:** federatu kopurua handitu asmoz urtean zehar bi publizitate zabaltze saiakera egingo dira federatzera gonbidatuaz. Honetarako web orria, facebook-a eta korreo elektronikoa erabiliko dira.
Lehen saiakera urtarrilean izango da, eta bigarrena aldiz, uda hasieran ekainean.

**SMART HELBURUAK:**

a. Urte bukaera bakoitzean, aurreko urtean baino 50 federatu gehiago izatea.

**ADIERAZLE GILTZARRIAK:**

c. Federatuen datu basea.

**ARDURADUNA:** GSFko idazkaria.

**DENBORALIZAZIOA:** 2015. urtea.

## 6.4. Jarduera metodologikoaren laburpena

Jarduera metologikoen laburpenean (Ikus 11. taula) errazago ikus daitezke planak, programak eta proiektuak nola elkar lotzen diren. Horrez gain, denboralizazioa taulan ikusteak ere asko laguntzen du urtean urteko proiektuak bereizteko.

Honekin lotuta, 2015. urtean 12 proiektu martxan jartzea aurre ikusten da, 2016. urtean 9 proiektu eta pixkanaka gutxitzen doaz proiektuak. Horrek ez du esan nahi urtetik urtera proiektu gutxiago jarriko direnik martxan, baizik eta une honetan urte horietarako aurre ikusten direnak horiek direla. Urtea gerturatu ahala egoera eta behar berriak sortuko dira eta horiei egokitu beharko da federazioa, urteko plangintzak eginez.

Taula 11: Jarduera metodologikoaren laburpena

| Planak | Programak | Proiektuak | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Kudeaketa plana | 1.1. Estruktura organikoaren eta bakoitzari dagozkion funtzioen programa. | 1.1.1. Proiektu estruktural bat garatu. | X | | | |
| | | 1.1.2. Ekintzen funtzio guztiei arduradunak ezartzearen proiektua. | X | | | |
| | 1.2. Txapelketetarako sistema informatikoaren programa. | 1.2.1. Sistema informatiko berria erostearen proiektua. | X | | | |
| | 1.3. Surf monitoreen programa. | 1.3.1. Surf monitoreen batzordea sortzearen proiektua. | | | | X |
| | 1.4. Ekintzen urteko planifikazioren programa. | 1.4.1. GSFk antolatuko dituen ekintzen urteko planifikazioaren proiektua. | X | | | |
| | | 1.4.2. Lehiaketen protokoloa egitearen proiektua. | X | | | |
| 2. Jarduera fisikoaren eta kirolaren plana | 2.1. Surfaren disziplina eta maila ezberdinetako ekintza ezberdinen programa | 2.1.1. SUP disziplinaren sustapen proiektua. | X | | | |
| | | 2.1.2. Bodyboard-aren sustapen proiektua. | | | X | |
| | | 2.1.3. Longboard-aren sustapen proiektua. | | | | X |
| | | 2.1.4. Kneeboard-aren sustapen proiektua. | | | | X |
| | 2.2. Emakumeen partaidetzaren programa. | 2.2.1. “Emakumea Surflari” proiektua. | X | | | |
| | 2.3. Gipuzkoako surfeko kluben ekintzen programa. | 2.3.1. “Elkarterik onenari saria” proiektua. | | X | | |
| | 2.4. Eskola Kirolaren programa | 2.4.1. “Eskola Kirola” proiektua. | X | X | | |
| | 2.5. Txapelketen programa | 2.5.1. Txapelketen proiektua. | X | | | |
| | 2.6. Teknifikazio programa | 2.6.1. “Teknifikazio” proiektua. | X | | | |
| | 2.7. Surfeko I. Mailako entrenatzaile ikastaroaren programa | 2.7.1. Entrenatzaileen I. mailako formakuntza tituluaren sustapen proiektua. | | X | | |
| | 2.8. Surfeko II. Mailako entrenatzaile ikastaroaren programa | 2.8.1. Entrenatzaileen II. mailako formakuntza tituluaren sustapen proiektua. | | X | | |
| | 2.9. Epaileentzat trebakuntza eta formakuntzaren programa | 2.9.1 Epaileen formakuntza tituluaren sustapen proiektua. | | X | | |
| 3. Finantza plana | 3.1. Babesleak lortzearen programa | 3.1.1. Marketing eta publizitatean aditua den pertsona baten kontratazioa. | | X | | |
| 4. Komunikazio eta marketing plana | 4.1. GSF eta EHSF (Euskal Herriko Surf Federazioarekiko) harremanen programa. | 4.1.1. EHSF eta GSFren funtzioak ezartzearen proiektua. | | X | | |
| | | 4.1.2. EHSFrekin ekintzen kolaborazio proiektua | | X | | |
| | 4.2. GSF eta surf elkarteekiko harremanen programa. | 4.2.1. Gipuzkoako Surf Elkarteen batzordea sortzearen proiektua. | | | X | |
| | 4.3. GSF eta surfarekiko lotura handien duten Gipuzkoako udaletxeekiko | 4.3.1. Udaletxeekin hitzarmenak lortzearen proiektua. | | X | | |
| | 4.4. GSF eta surf epaileekiko harremanen programa. | 4.4.1. Gipuzkoako Surf Epaileen batzordearen proiektua. | | | X | |
| | 4.5. Web orriaren programa. | 4.5.1. Web orria proiektua. | X | | | |
| | 4.6. Federatzeko kanpainaren programa | 4.6.1. “Federa zaitez” proiektua. | X | | | |

# 7. EXEKUZIOA

Behin plangintza guztia idatzi ondoren proiektu bakoitzari dagokion datetan exekuzioari ekiten zaio. Baita plan estrategikoa beraren exekuzioari ere. Horretarako Kudeaketa Planaren barnean dagoen *1.1.Estruktura organikoaren eta bakoitzari dagozkion funtzioen programa* betetzen hasiko da ondoren proiektu bakoitza modu egoki batean burutzeko.

Hau da, lehenik eta behin aurrera eraman behar den proiektuaren zeregin guztiak zerrendatu, ordenatu eta bakoitzari denbora eta arduraduna zehaztuko zaizkio ordenagailuko OpenProj programa informatikoa erabiliaz. Ondoren, proiektua idazten da ahalik eta zehatzena (3. eranskina).

Azkenik idatzitako guztia betetzen da, zeregin bakoitzari dagokion epean dagokion arduradunak eginaz.

## 7.1. EMAKUMEA SURFLARI PROIEKTUA MARTXAN

Emakumearen parte-hartzea orokorrean oso baxua dela Plan Estrategikoaren diagnostikoan identifikatutako hutsune bat da eta honi aurre egiteko 2015. urterako proiektu bat egitea planifikatu bada ere Foru Aldundian diru laguntzak jasotzeko aukera ikusita 2014. urtean proiektu bat presentatzea erabaki eta diru laguntza hori jasotzea lortu da. Horrela, emakumea surflari proiektua martxan jarri da.

Hona hemen proiektuaren exekuziorako kudeaketa planeko 1.1.Estruktura organikoaren eta bakoitzari dagozkion funtzioen programak egitea proposatzen zuen zereginen zerrenda antolatua OpenProj programa informatikoan (Ikus 7., 8., 9., 10. eta 11. irudiak). Eta jarraian Emakumea Surflari Proiektua erredaktatua.




Irudia 11: OpenProj programan emakumea surflariren zereginak zerrendatuta V

# Emakumea Surflari Proiektua



AURKIBIDEA

1. Sarrera ........................................................................................................ 3

2. Helburuak ...................................................................................................... 5

3. Proiektuaren mamia ....................................................................................... 6

3.1. Emakumea eta Surfa Batzordea sortzea ................................................... 6
3.2. Partaidetzako Kirola ................................................................................... 7
3.3. Errendimenduko Kirola ............................................................................... 8
3.4. Emakumea Surflari Topaketa ..................................................................... 9

4. Metodologia eta baliabideak ........................................................................ 10

5. Egutegia ...................................................................................................... 12

6. Aurrekontua .................................................................................................. 13

# 1. SARRERA

Emakumeak eta kirola. Kirol arloan emakumeen partaidetza handitzen ari den arren, oraindik ere, emakumeek, oztopo ugari aurkitzen dituzte kirola egiteko garaian. Oztopo hauen jatorria hezkuntza eta sozializazioan zein kirol egituren kudeaketan aurkitzen da. Gipuzkoako Surf Federazioak aurrerapauso bat eman nahi du kirolean, eta bereziki surfean, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko.

Tradizioa. Surfa tradizioz mutilen kirola izan da. Orohar, naturarekin kontaktuan egiten diren kirolak mutilen eremu izan dira, hala nola, arrantza, surfa, arraunketa, bela, etab. Mutilentzat askatasun sentsazioa bilatzeko aukera paregabea dena neskentzat arrisku eremutzat hartu da denbora luzez[1].

Emakumeak eta surfa gaur. Geroz eta gehiago dira taula hartu eta surfa probatzera animatzen diren neskak. Bestalde,2009-2010 denboraldian Gipuzkoako Surf Federazioak guztira 1.594 lizentzia izan zituen, horietatik 207[2] neskenak izanik. Gaur egun, 2013-2014 denboraldian 1.544 lizentzia ditu, eta horietatik 197 emakumeenak dira. Emakumeek ere itsasoa eta surfa gustuko dute, eta uste dugu beharrezkoa dela Euskal Herrian hain errotua dagoen kirola emakumeen artean ere sustatzea. Eta gure inguruneak eskaintzen digun aukera paregabea kontuan hartuta, emakumeek askatasun osoz naturaren baliabide horietaz ere gozatu ahal izatea nahi genuke.

Lehiaketa eta partaidetza. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da Gipuzkoan surf egiten duen jende guztia ez dagoela federatua, ezta gutxiago ere. Gaur egun federatuta egotea lehiaketarekin lotzen da, aitzitik, surfean ibiltzen diren neska-mutil gehienak ez dira lehiatzen. Gipuzkoako Surf Federazioak lehiaketa zein partaidetza

[1] Azurmendi, A. eta Fontecha, M. (2012). UPV/EHU-ko Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterreko “Kirola eta
[2]www.kirolbegi.net.

sustatu nahi du emakumeen artean, norberak nahi eta ahal duen moduan disfrutatzeko kirol honetaz.

Antzeko beste iniziatibak. Urruneko eta bertako esperientzia ezberdinek erakutsi digute beharrezkoa dela emakumeentzat espazio propioak sortzea, bere kirol jarduerarekin zerikusia duten gaietan iritzia eman ahal izatea, erabakiak hartzeko espazioak eskaintzea, eta ereduak erakustea (adin ezberdinetako beste emakume surflariak, emakume begiraleak, emakume epaileak, etab.).

Norwegiako Snowboard Federazioak, esaterako, emakumeez osatutako batzorde bat sortu zuen emakumeen artean kirol hau sustatzeko, eta horixe uste dute izan zela hain zuzen partaidetza bultzatzeko -eta handitu izanaren- gakoa[3].

Gertuko beste adibide arrakastatsu bat aipatu behar dugu, hain zuzen, hainbat urtez martxan daraman *Emakumea Pilotari* Proiektua. Proiektu honi esker, herri ezberdinetan, eta adin eta kirol-maila ezberdinetako emakumeak urteetan pilotan jokatzen aritu dira.

Emakumea Surflari Proiektua. Gipuzkoako Surf Federazioak, emakumeek surfaren munduan duten parte hartzea sustatzeko eta maila tekniko zein taktikoa hobetzeko asmoz, emakumeek bideratuta, 2014an abian jartzeko egitasmoa da hau.

## 2. HELBURUAK

[3]Ikus www.snowboardforbundet.no/girls

Proiektu honek batez ere bi helburu ditu. Batetik, emakumeek surf munduan duten parte hartzea sustatu nahi da, bai surf librean eta araututako txapelketa herrikoietan (parte hartze kirolean), eta nahi izanez gero, baita entrenamendu eta araututako txapelketa ofizialetan ere (errendimenduko kirolean).

Hain zuzen:

- Adin ezberdinetako emakumeek surfa zer den probatzea.
- Emakumeek kirol hau egiten disfrutatzea.
- Emakumeen partaidetza sustatzea surfean (nesken kopurua handitzea eta eskaintzaren kalitatea hobetzea), dela partaidetza ibilbidean, dela errendimenduan.

Bestetik, emakumeen maila tekniko eta taktikoa hobetzea ere helburu izango da, teknifikazio bidez, entrenamenduen plangintza eginez, etab. Honen ondorio zuzena emakumeen surf maila handitzea, eta ondorioz, araututako txapelketa ofizialetan emaitza hobeak lortzea izango litzateke.

# 3. PROIEKTUAREN MAMIA

## 3.1 Emakume Surflari Topaketa

Behin ere surfarekin harremanik izan ez dutenek, kirol hau probatu dutenek, nahiz honetan jarduten dutenek doako ikastaro zein entrenamenduak izango dituzte egun batez, emakumearen parte hartzea sustatzeko.

Horrez gain, egun honen helburua Emakumea Surflari programa ezagutzera ematea ere bada, iraila eta urrian egingo diren saioetara emakumeak animatzeko bide bat.

Goizean, hastapeneko ikastaroak eskainiko dira. Jarraian maila aurreratuago dutenekin Kantauri Ligan egiten den lehiaketa estilora 90 minutuko saio bat egingo da grabaketa eta guzti. Ondoren, grabaketa ikusiz bakoitzarekin teknika aztertuko da.

Kirol saioa amaitzean elkarrekin bazkalduko dute.

## 3.2 Partaidetzako kirola

18 urtetik gorako emakumeentzat eskainitako saioak dira. Arlo honetan aurki daitekeen kideen maila tekniko-taktikoa ezberdina dela kontuan hartuta, talde ezberdinak osatuko dira ikaskuntza prozesua esanguratsuagoa izan dadin. Parte hartzaile kopurua txikia izatekotan elkartu egingo lirateke taldeak.

A taldea. Surfarekiko jakintzarik ez dutenek zein taula handiekin lehertutako olatuak harrapatu eta etzanda zein zutik olatuaren gainean mugitzeko gaitasuna dutenek osatuko dute talde hau. Eta bertan surfaren hastapeneko jakintzak irakatsiko dira.

Hauek dira jomugak:

- Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek surfaren oinarrizko maila bereganatzea.
- Ikastaro amaieran ikasleak itsasora taula batekin modu autonomo batean itsasora joateko gai izatea.

- Ikastaro amaieran ikasleak surfean egon daitezken arriskuekiko kontziente izan eta hauen aurrean erantzun egokia emateko gai izatea.
- Surf ikastaro hauen bitartez ikasleak hastapenaren ondorengo mailetarako prestatzea.
- Surf ikastaroko kide zein gainontzeko surflarien artean harreman sozialak sustatzea.
- Surf ikastaro hauen bitartez ikasleak ezarrita dauden surf-arauekiko kritiko izanik gainontzeko surflariak errespetatzea.

B taldea. Aparretan norabide aldaketak egin, olatuak gaindituz “piko”-ra iristeko gai izan eta lehertu gabeko olatuak harrapatu dezaketenek, 6,6 edo neurri txikiagoa duten taulen gainean zutitzeko gai direnek osatuko dute talde hau. Talde honetan surfaren erdi mailako jabetzak irakatsiko dira.

Hauek dira jomugak:

- Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek surfaren erdi mailako jabetzak bereganatzea.
- Ikastaro amaieran ikasleak itsasora taula batekin modu autonomo batean itsasoratu, olatuak igaroz “piko”-ra iritsi eta olatua harrapatzea.
- Ikastaro amaieran ikasleak surfean egon daitezken arriskuekiko kontziente izan eta hauen aurrean erantzun egokia emateko gai izatea.
- Surf ikastaro hauen bitartez ikasleak surf lehiaketak ezagutu eta hauen lehen pausuetarako prestatzea.
- Surf ikastaroko kide zein gainontzeko surfisten artean harreman sozialak sustatzea.
- Surf ikastaro hauen bitartez ikasleak ezarrita dauden surf-arauekiko kritiko izanik gainontzeko surflariak errespetatzea.

## 3.2 Errendimenduko kirola

Alde batetik, Gipuzkoa mailan, Euskal Herri mailan zein nazioarteko mailan lehian jarduten duten edo jardun nahiko luketen 16 urtetik gorako emakumeei zuzendutako saioak eskainiko dira. Hain zuzen ere, lehiaketetarako prestatzeko entrenamendu saioek osatuko dute egitasmo hau. Bertan eduki teoriko, tekniko-taktiko eta fisikoak landuko dira.

Hauek dira jomugak:

- Entrenamendu hauetan parte hartzen dutenek lehiarekiko eduki teoriko, tekniko-taktiko, psikologiko eta fisikoak bereganatzea.
- Surf maila hobetzea.
- Norbereganako konfiantza handitzea.
- Ikastaro amaieran ikasleak txapelketa ofizial batean autonomiaz izena eman eta parte hartzeko gaitasuna izatea.
- Ikastaro amaieran ikasleak lehiaketetarako prestakuntza orokorraren (entrenamenduen) jakintzak barneratuta izatea.
- Surf entrenamendu hauen bitartez ikasleak lehiaz disfrutatzea.
- Surf ikastaroko kide zein gainontzeko surflarien artean harreman sozialak sustatzea.
- Surf ikastaro hauen bitartez ikasleak ezarrita dauden surf-arauekiko kritiko izanik, surf librea eta lehia bereiziaz gainontzeko surflariak errespetatzea.

# 4. METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

## Emakume Surflari topaketa

Egun osoko surf-ikastaro-erakustaldi eta topaketa festa. Hondartzan surfean ibili eta parte hartu nahi duten guztiek elkar ezagutzeko parada edukiko dute.

### Laburbilduz:

ZENBAT: Egun bat
NON: Zarautzen
NOIZ: Uztailan
NOREKIN: Surf egitera animatzen den emakume guztiekin
MATERIALA: Musika ekipoa, argazki/bideo kamara, surf materiala.

## Partaidetzako A eta B taldeak

Zarautzen eskainiko dira ikastaroak, astean bi orduko saio bat. Lehenengo urtea izanik emakumeak honetan animatzeko egun bat nahikoa dela uste dugu.

Hilabete eta erdi iraungo du programak: iraila hasieran hasi eta urria erdian bukatu.

Gipuzkoako Surf Federaziotik eskakizuna egingo litzateke Zarauzko Surf Eskolako materiala erabili ahal izateko prezio berezi batean: taulak, neoprenoak, parafina.

### Laburbilduz:

ZENBAT: Astean 2 orduko saio 1
NON: Zarautzen
NOIZ: Iraila hasieran hasi eta urria erdian bukatu
NOREKIN: Surfeko emakume teknikari tituludunekin (gehienez 6 partaide teknikari bakoitzeko).
MATERIALA: Taulak, likra/kamiseta, neoprenoa, parafina.

## Errendimenduko emakume surflariak

Federazioak Gipuzkoako surfeko elkarte ezberdinei proiektua aurkeztuko die, eta errendimenduko atalean parte hartzeko ezaugarriak dituzten nesken proposamena egingo da, eta eskaintza luzatuko zaie.

Hastean hiru orduko bi saio egingo lirateke. 6 ikasleko teknikari bat eta Soin Hezkuntzako lizentziatu bat egongo dira.

Honek ere, irailean hasi eta urria erdi alderarte iraungo du.

## Laburbilduz

ZENBAT: Astean 3 orduko saio 2

NON: Zarautzen

NOIZ: Iraila hasieran hasi eta urria erdian bukatu

NOREKIN: Surfeko emakume teknikari tituludunekin eta soin hezkuntzako lizentziatu batekin.

MATERIALA: Norberak berea.

## 5. EGUTEGIA

| Uztaila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | A2 | A3 | O1 | O2 | L | I |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

| Abuztua | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | A2 | A3 | O1 | O2 | L | I |
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

| Iraila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | A2 | A3 | O1 | O2 | L | I |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

| Urria | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A1 | A2 | A3 | O1 | O2 | L | I |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

Partaidetza: A taldea

Partaidetza: B taldea

Errendimendua

Egutegi hau proposamen bat besterik ez da, partaideekin egunak adostu daitezke.

# 6. AURREKONTUA

Emakumea surflari proiektua abian jartzeak 4.813,80 euro balio du.

| KONTUA | KONTZEPTUA | AURREKONTUA | BALANTZEA | % | ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|---|---|
| | **GASTUA** | **4.813,80 €** | **- €** | **0,00%** | **4.813,80 €** |
| 640 | TEKNIKARIAK | 2.920,00 € | | 0,00% | 2.920,00 € |
| 629 | MATERIALA | 500,00 € | | 0,00% | 500,00 € |
| | LIKRAK-KAMISETAK | | | | 0,00 € |
| 623 | PROIEKTUA GENERO IKUSPEGIA LAGUNTZA TEKNIKOA | 943,80 € | | 0,00% | 943,80 € |
| 625 | SEGURUA | 150,00 € | | 0,00% | 150,00 € |
| | MUSIKA EKIPOA | | | | 0,00 € |
| | SARIA | | | | 0,00 € |
| | BESTELAKOAK | 300,00 € | | 0,00% | 300,00 € |
| | | | | | |
| | **SARRERA** | **4.813,80 €** | **- €** | **0,00%** | **4.813,80 €** |
| 740 | DIPUTAZIOA | 2.406,90 € | | 0,00% | 2.406,90 € |
| 700 | SURFLARIAK | 2.406,90 € | | 0,00% | 2.406,90 € |
| | BABESLEAK | | | | 0,00 € |
| | **GUZTIRA** | **- €** | **- €** | **-** | **0,00 €** |

# 8. EBALUAZIOA

Prozesu baten emaitzak zein izan diren eta unean zein diren zehaztu eta honen aurrean ezarritako helburuak lortzeko erabakirik egokienak hartzeko,prozesuaren osagai eta aldaketen hausnarketa kritiko bezala ulertzen da gaur egun ebaluazioa (Blázquez, 1993).

Beraz, ezarritako helburuen nondik norakoak ezagutzeko plan estrategiko guztia ebaluatua izan behar da. Ez du askotarako balio planifikatzeak ondoren arrakasta edo porrota duen jakiteko jarraipenik ez badauka (Bujanda, 2004).

Planaren ebaluazioak hiru maila dauzka:

1. Ebaluazioa etengabea
2. Urteko ebaluazioa
3. Bukaerako ebaluazioa

Zuzendaritza Batzordeak izendatutako Plan Estrategikoaren arduradunak egingo ditu ebaluazio hauen prozesuaren jarraipena eta hemendik ateratako emaitzen dokumentuak.

1. EBALUAZIO ETENGABEA

Antolatutako plan bakoitzak denboraldian zehar bere egoeraren jarraipena eduki behar du. Horregatik, proiektu bakoitzari aldizkako kontrolak egin behar zaizkie. Hau da, proposatutako proiektu bakoitzaren nondik norakoak ezagutu behar dira eta hasieran ezarritako helburuekin bat datozen ziurtatu. Horrela, zerbait okertuz gero zuzentzeko aukera egongo da (Bujanda, 2004).

Honetarako oso lagungarriak izango zaizkigu proiektu bakoitzari ezarritako SMART helburuak eta gidalerroak.

Hau bideratzeko, Plan Estrategikoaren komisioa urtean hiru aldiz elkartuko da: denboraldi hasieran (otsaila inguruan), denboraldi erdian (iraila inguruan) eta denboraldi bukaeran (abendua inguruan).

## 2. URTEKO EBALUAZIOA

Denboraldi konkretu baten urteko planaren balorazioa da; hau da, denboraldirako ezarritako proiektu eta helburuen ebaluazioa. Ebaluazio hau bi ataletan banatzen da (Bujanda, 2004):

a. Urteko plangintzan proposatutako proiektuen exekuzio maila.
b. Urteko plangintzan ezarritako helburuen betetze maila.

Beraz, alde batetik hasieran proposatutako proiektu guztiak exekutatu diren ebaluatuko da eta bestetik ea hauetako bakoitzari ezarritako helburuak lortu diren.

Plan Estrategikoaren arduradunak "Urteko Plangintzaren Ebaluazioa" txostena argitaratuko du, eta honen bitartez, Plan Estrategikoa moldatu ahal izango da egoera berriei egokituaz, diagnostiko berriak eginaz eta helburu berriak ezarriaz, plan estrategiko bat ez baita zerbait zurruna.

## 3. BUKAERAKO EBALUAZIOA

Bukaerako ebaluazioak Plan Estrategikoa bere osotasunean baloratuko du, eta hau ezarritako periodoaren bukaeran izango da. Kasu honetan 2018. urteko denboraldia bukatu ondoren (Bujanda, 2004).

Urteko ebaluazioak bezala bi ataletan banatzen da, nahiz eta kasu honetan Plan Estrategikoa bere osotasunean ebaluatzen den (Bujanda, 2004):

a. Plan Estrategikoan proposatutako proiektuen exekuzio maila.
b. Plan Estrategikoan ezarritako helburuen betetze maila.

Hemen ere, hasieran proposatutako proiektu guztiak exekutatu diren ebaluatuko da eta baita GSFk Plan Estrategikoaren bidez lortzea espero dituen helburuak lortu diren ere.

Zuzendaritza Batzordeak izendatutako Plan Estrategikoaren arduradunak "Gipuzkoako surf federazioaren 2015-2018 lau urtekorako plangintza estrategikoaren ebaluazioa" txostena sortu eta Zuzendaritza Batzordean aurkeztu beharko du batzordeak onartu dezan. Ondoren, txosten honetatik aurrera begira plan estrategiko berri bat ezartzearen hausnarketa sortuko du.

# 9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA


- Abascal Rojas, F. (2004). *Cómo se hace un plan estratégico* (4º ed., 187-197 or). Madrid: ESIC.
- Blázquez Sánchez, D. (1993). Perspectivas de la evaluación en educación física y deporte. *Apunts: Educació Física i Esports, 31*, 5.
- Bujanda, J. (2014). Plan estratégico 2010-2014. Federación Alavesa de Balocesto.
- Emery, P. (2011). Commencing the plan: SMART objectives and key permormance indicators. *The sport management toolkit* (1º ed., 26-27 or). New York: Routledge.
- EHSF, (2010) Cuotas de licencias de Guipúzcoa.
- EHSF, (2011) Cuotas de licencias de Guipúzcoa.
- EHSF, (2012) Cuotas de licencias de Guipúzcoa.
- EHSF, (2013) Cuotas de licencias de Guipúzcoa.
- Euskal herriko kirol erakundeen erregistroa (n.d.). 2014ko abuztuaren 25ean kontsultatua, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunea: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/u75aWebAppWar/consultasJSP/clubs/u75aConsultaClubDispatch.do
- Gipuzkoako A. O., (2012). 2012ko apirilaren 2ko 12/2012 FORU DEKRETUA, kultura, gazteria eta kirol departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, 1. artikulua: Departamentuaren eginkizunak eta jarduera esparruak.
- Gipuzkoako foru aldundiaren laguntzak, bekak eta dirulaguntzak (2014). 2014ko martxoaren 23an kontsultatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea: http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSPortalSubvencionesWEB/busqueda.do?boton=listado&perfil=ASOC&materia=DEPO
- Gipuzkoaren ezaugarri demografikoak (2012). 2014ko maiatzaren 16an kontsultatua, Gipuzkoako Batzar Nagusiaren webgunea: http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=0401&idioma=eu

- Grima Cintas, P., Pozueta Fernández, L., Prat Bartés, A., Solé Vidal, I. & Tort-Martorell Llarbés, X. (1997). El ciclo PDCA como estrategia básica de los procesos de mejora continua. *Métodos estadisticos. control y mejora de la calidad* (1º ed., 20-21 or). Barcelona: Edicións UPC.
- GSF, (2007) Gipuzkoako Surf Federazioaren estatutuak.
- GSF, (2013) Gipuzkoako Surf Federazioaren federatuen datu basea.
- GSF, (2014a) Gipuzkoako Surf Federazioko 2014. urteko aurrekontuen azalpena.
- GSF, (2014b) Gipuzkoako Surf Federazioko 2014. urteko ekintzen programa.
- GSF, (2014c) Gipuzkoako Surf Federazioko elkarte aktiboen datu basea.
- GSF, (2014d) Gipuzkoako Surf Federazioko urteko batzar orokorreko akta.
- Kaufman, R. A. (1973). *Planificación de sistemas educativos* (2º ed., 17 or). México: Trillas.
- Kirol eragileak (n.d.) Uztailaren 10ean kontsultatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea: http://www.gipuzkoakirolak.net/orria.php?hizkntz=1&pg=50
- Larrañaga Altuna, H., & Troitiño Berasategi, M. (2013). *Euskal herriko surf gida. ehun urautsi eta olatu baino gehiago* (1º ed.). Donostia: Herritar Berri S.L.U.
- Mestre Sancho, J. A. (2004). *Planificación deportiva. Teorica y practica* (3º ed.). Barcelona: INDE.
- Sainz de Vicuña Ancín, J. M. (2012). ¿Por qué realizar un plan estratégico? *El plan estratégico en la práctica* (3º ed., 43-44 or). Madrid: ESIC.

# 10. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Gipuzkoako Surf Federazioak 2014. urtean dituen proiektuak eta beraien analisi espezifikoa

## 1. Eskola Kirola

Helburua:

Kiroletan hasteko jarduerak surfaren modalitatea irakastea da, ez dago lotuta lehiaketetan parte hartzearekin, eta irekiak dira parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, bakoitzaren kirol gaitasunagatik mugarik jarri gabe.

Antolaketa:

2013-2014 ikasturtean Gipuzkoako unibertsitatez kanpoko irakaskuntza zentroetan ikasi eta matrikulatuta dauden ikasle guztiek ikasturtean zehar zirkular bidez (nolako jarduerak eta parte hartzeko arauak zehaztuz) deitzen diren kiroletan hasteko jardueretan parte hartuko dute, naiz eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak salbuespenak baimendu ahal izango dituen. Horretarako finkatzen diren epeetan eman beharko dute izena.

Ikasturtearen hasieran, kirolean hasteko jarduera guztiei buruzko informazio bateratua bidaliko da ikastetxeetara, jarduera bakoitzaren ezaugarriak eta partaidetza arauak bertan azalduko direlarik. Halere, kirol modalitate bakoitzeko berezitasuna kontuan hartuz, ikasturtean zehar aipatu informazioa sakontzen duten hainbat zirkular ere bidali ahal izango dira.

Ikastetxearen zeregina da oro har natura ingurunean garatzen diren jolas izaerako kirol jardueraren eskaintza ikasleek jaso dezaten laguntzea. Ikasturtean zehar garatutakoen osagarri delarik, jarduera hauetan aritzeak ikasleen kirol prestaketa aberasten du, eta beraz horien heziketa integrala errazten du.

Prozedura:

Kiroletan hasteko jardueretan parte hartzeko izena ematerakoan prozedura bat jarraitu behar da:

1. Ikastetxeari buruzko datuak bidali mailez GSFra: gsf@euskalsurf.com
2. GSFk Surf Eskolarekin ikastaroa zehaztu eta konfirmazioa emango zaizue.
3. Aldundiko Eskola Kiroleko aplikazio informatikoan ikasle zerrenda sartu.
4. GSFra zerrenda sartu izana informatu mailez eta fakturarako eskolako datuak bidali.
5. Zerrendako ikasle kopuruaren arabera faktura bidaliko zaizue mailez.
6. Ordainketa egin ikastaroaren aurretik
7. Ikastaroaren balorazio labur bat bidali mailez GSFra

Beharrezko datuak (prozeduraren 1. puntua):

- Ikastetxearen izena eta herrialdea:
- Ikastaro mota (2 edo 6 ordukoa):
- Ikastaroa egiteko hondartza:
- Data:
- Goizez / arratsaldez eta ordua:
- Ikasleen adina eta kopurua:
- Surf Elkarte / Eskola batekin hitzarmenik edo lehentasunik, norekin?:
- Kontaktuzko pertsonaren izena eta telefonoa:

## 2. Gipuzkoako Surf Txapelketa

Helburua:

Gipuzkoako txapeldunak izendatzeko txapelketa ofiziala egitea.

Antolaketa:

Bertan surfa, bodyboard eta Longboard diziplinak lehiatzen dira.

Hauek dira kategoria ezberdinak:

SURF GAZTEAK: 18Azpi Neska, 18 Azpi Mutil, 16Azpi Neska, 16 Azpi Mutil, 14 Azpi Neska, 14 Azpi Mutil, 12 Azpi Neska, 12 Azpi Mutil

SURF ETA LONGBOARD HELDUAK: : Open emakume, Open gizon, Longboard misto, SUP misto, master misto (40 urtetik gora)

BODYBOARD: Open emakume, Open gizon, 18 Azpi misto, 16 Azpi misto (ikastxiki-body).

## 3. Ikastxiki

Helburua:

Adin honetako haurrek (16 urtetik behera) zirkuitu honen bidez txapelketen dinamika ezagutu, lehiakortasunaren norgehiagoka ezagutu eta errendimendu bidearen hastapenetan hastea.

Antolaketa:

Programa honetan adin honetako haurrentzat txapelketa ezberdinez osatutako zirkuitu bat antolatzen da BSFrekin elkarlanean.

Egutegi finko bat izanik, txapelketa eguna gerturatu ahala GSFko komunikabideetan argitaratzen da (facebook), baita EHSFko web orrian ere. Zehaztuta dagoen izen emate epearen barne, izena eman dagokion lekuan (gsf@eukalsurf.com edo ehsf@euskalsurf.com) eta txapelketarako prest.

Egutegia:

| Txapelketa | Lekua | Eguna | Antolatzailea |
|---|---|---|---|
| Ikastxiki GSF | Zarautz | Maiatzak 10-11 | GSF |
| Ikastxiki Rip Curl Grom Search | Donostia | Ekainak 14-15 | GSF |
| Ikastxiki BSF | Bakio | Ekainak 28-29 | BSF |
| Ikastxiki BSF | Sopela | Irailak 6-7 | BSF |

## 4. Teknifikazio programa

Helburua:

Gazteek errendimendu bideko entrenamendu eta diziplina, eta Europako maila tekniko-taktiko-fisikoa zein den ezagutzea esperientzia duten profesionalen eskutik.

Antolaketa:

BILKURAK.

Kirolariei jarraipena egiteko egun batean burutuko diren jardunaldiak dira. Urtean 5 saio izango dira guztira, bakoitza 8 ordukoa, goizeko 9:30etatik 13:30etara lehen Saioa, ondoren bazkaldu eta arratsaldean bigarren Saioa 15:30etatik 19:30ak arte. 22 kirolariko taldeak osatuko dira: 10 surflari gizonezko, 5 surflari emakumezko eta 6 bodyboarder gizonezko (emakumezkorik ez dago). Guztia kirol teknikari batek gidatuko du.

Saio guztiak ildo beretik doazen arren saio bakoitzean teknikari aditu batek bere jakinduria, esperientzia, baliabideak… partekatuko ditu kirolariek ikaskuntza aberasgarri bat izan dezaten.

Eta hau guztia, Gipuzkoako hondartza ezberdinetan egingo da leku ezberdinak ezagutzeaz gain leku ezberdinetakoengan afizioa sortzeko intentzioz.

- Zarautzen 2 saio
- Zumaian saio 1
- Deban saio 1
- Donostian saio 1

KONTZENTRAZIOAK

Errendimendura bideratuta diseinatu diren astebeteko jardunaldiak dira (5 egun). Urte osoan bi kontzentrazio egingo dira, bata kirol denboraldiaren amaieran, abenduan eta bestea denboraldiaren hasieran, apirilean. Irteera hauetan 8kirolariko taldeak osatuko dira: 4 surflari gizonezko, 2 surflari emakumezko eta 2 bodyboarder gizonezko (emakumezkorik ez dago).

Honez gain, hautatuak izan direnek psikologo baten laguntza eta jarraipena izango dute urtean zehar. Gainera, Europan diren maila internazionaleko 4 probetara bideratuak izango dira (ranking ofizialean kontuan hartzen direnak 4 proba baitira). Zehatzago esateko ondorengo lekuetako lehiaketetara joango dira: Surflariak, Royan, Sopela, Lacanau eta Gijon-go Pro Juniorretara. Galizia eta Canarisetakoak ez dira sartuko programa honen barruan, hauek duten kostu ekonomikoa dela eta.Bodyboarreko txapelketak berriz hauek dira: La Salie (Frantzia), Figueira da Foz (Portugal) eta Zumaia.

SURF. ASP Pro Junior 2014ko txapelketak.

| Data | Txapelketaren izena | Lekua |
|---|---|---|
| Uztailak 3-6 | Sooruz Royan Atlantique Pro Junior | Royan-France |
| Uztailak 24-27 | Sopela O'Neill Pro Junio | Sopela |
| Abuztuak 8-11 | Airwalk Pro Junior Lacanau | Lacanau, South West-France |
| Irailak 11-14 | Gijon Pro Junior | Gijon, Asturias |

*Erreferentzia. ASPeurope*

BODYBOARD. Europako txapelketak

| Data | Txapelketaren izena | Lekua |
|---|---|---|
| Maiatzak 12 | La Salie Pro Bodydoarding Festival | La Salie, Arcachon-France |
| Irailak 6 | Figueira Bodyboard Pro Festival | Praia do Cabedelo, Figueira da Foz-Portugal |
| Urriak 20 | Zumaia Bodyboard Pro 2013 TBC | Zumaia |

*Erreferentzia. http://www.eurosurfing.org*

URTEKO EGUTEGIA

Kirolariek dituzten txapelketak kontuan hartu dira kontzentrazio eta bilkuren egunak zehazterakoan.




**Hautaketaren irizpideak.**Programan hautatutako kirolariek bakarrik hartuko dute parte eta hauek dira hautatua izateko irizpideak:

**Bilkurak.** Guztira elite mailakoak ez diren 22 kirolari izango dira hautatuak. Ondoren adierazitako irizpideak idatzita dauden ordenean hartuko dira kontutan.

- Gizonezko surflarien artean (10)
    - 2013. urteko ASPko ranking-aren arabera lehenengo 6 kirolari.
        - ASP Pro Junior txapelketetako 3 kirolari.
        - ASP Men's Star Ranking-eko lehenengo 3 kirolari (ez badaude zuzenean Pro Juniorretik aterako dira).
    - 2013ko Gipuzkoako Surf Txapelketan lehenengo 3 postuetan gelditu diren kirolariak (hauek ASPko rankig-aren barne sartu badira hurrengoak hartuko dira kontutan).

        - Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

- Emakumezko surflarien artean (5)
    - 2013. Urteko ASPko ranking-aren arabera lehenengo 3 kirolari.
        - ASP Pro Junior txapelketetako 2 kirolari.
        - ASP Women's Star Ranking-eko lehenengo 1 kirolari (ez badaude zuzenean Pro Juniorretik aterako dira).
    - 2013ko Gipuzkoako Surf Txapelketan lehenengo 2 postuetan gelditu diren kirolariak (hauek ASPko rankig-aren barne sartu badira hurrengoak hartuko dira kontutan).
    - Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

- Bodyboarderren artean (6)
    - 2013ko Europako Bodyboard zirkuituko lehenengo 3 kirolari.
    - 2013ko Gipuzkoako Bodyboard Txapelketan lehenengo 2 postuetan gelditu diren kirolariak (hauek Europako Zirkuituko rankig-aren barne sartu badira hurrengoak hartuko dira kontutan).
    - Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

**Kontzentrazioak.** Guztira 9 kirolari izango dira hautatuak. Ondoren adierazitako irizpideak idatzita dauden ordenean hartuko dira kontutan.

- Gizonezko surflarien artean (3)
    - 2013. urteko ASP Pro Junior Ranking-aren arabera lehenengo 1 kirolari.
    - 2013ko Gipuzkoako Surf Txapelketan lehenengo 1 postuan gelditu den kirolaria (hau ASPko Pro Junior Zirkuituko rankig-aren barne sartu bada hurrengoa hartuko da kontutan).

- Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

- Emakumezko surflarien artean (3)
  - 2013. urteko ASP Pro Junior Ranking-aren arabera lehenengo kirolaria.
  - 2013ko Gipuzkoako Surf Txapelketan lehenengo 1 postuan gelditu den kirolaria (hau ASPko Pro Junior Zirkuituko rankig-aren barne sartu bada hurrengoa hartuko da kontutan).
  - Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

- Bodyboarderren artean (3)
  - 2013ko Europako Bodyboard zirkuituko lehenengo kirolaria.
  - 2013ko Gipuzkoako Body Txapelketan lehenengo 1 postuan gelditu den kirolaria (hau Europako Body zirkuituko rankig-aren barne sartu bada hurrengoa hartuko da kontutan).
  - Teknikarien zein arduradun tekniko edo administratiboen artean erabakitako kirolari 1.

Hautatua izan den kirolariren batek Teknifikazio Programa 2014ean parte hartzeari uko egiten badio, emandako irizpideen arabera eta orden berdinean hurrengoa hartuko da kontutan.

## 5. Surf City (Donostia Winter series Junior Challange)

Neguan egiten den txapelketa bakarra da. 20 urte azpiko mailan honenen artean dabiltzan 12 surflari gonbidatzen dira txapelketa honetara.

Helburua:

Neguan ere lehiaketak guztiz alboratu Gabe maila mantentzeko pizgarria izatea.

Antolaketa:

Donostiako Kontxa hondartzan edo Ondarreta hondartzan urtean bi saio egiten diren egun bateko txapelketak dira.

Aurretik aipatu bezala ASPren Europako ranking ofizialean lehen postuetan dauden 12 surflari gipuzkoar gonbidatzen dira txapelketa honetara. Horietaz gain, Lapurditik ere zenbait surflari gonbidatzen dira lehia biziagoa izan dadin.

## 6. Kantauri Surf Liga

Elkarteen arteko taldekako lehia sustatzen duen jardunaldi ezberdinek osatzen duten liga bat da.

Helburua:

Leku ezberdinetako hondartzak, elkarteak eta elkarteetako kideak ezagutzeko modu bat sortzeaz gain, lagunarteko lehia kolektibo bat sortzea orain arte guztiz indibiduala izan den kirol honetan.

Antolaketa:

Egunak egutegi batean zehaztuta daudela, elkarte bakoitzak antolatzen du dagokion jardunaldia, horrela, bisitan datorren taldeari ongi etorria egin eta lehia bukatu ondoren elkartea erakutsi nahiz mokadutxoa eskaintzen die giro ona sustatzeko.

Lehia hau ez da ohiko lehiaketa sistema, baizik eta taldekakoa. Jardunaldi bakoitzean talde batek likra bat duelarik taldekide guztiek 3 olatu harrapatuko dituzte likrarekin hauek epaile batzuengandik epaitua izango direlarik. Bukaeran taldekide guztien puntuaketen batura izango da emaitza eta bi taldeetatik puntu gehien dituenak 3 puntu irabaziko ditu. Berdinduz gero bi taldeek 2 puntu, galtzen dituenak 1 eta aurkezten ez denak 0. Horrela sailkapen bat sortzen da eta ligaren bukaeran irabazle bat egongo da.

GSFk *Kantauri Surf Liga* aurrera eramateko egiten dituen antolaketa lanak hauek dira:

- Epaileak jartzen ditu jardunaldiak modu serio batean epaituak izan daitezen.
- Sariak ematen ditu.
- Inskripzio lanak egiten ditu.
- Komunikazio aldetik ligaren jarraipena egiten du.

## 7. Negua Sariak

Sari ezberdinak ematen dira urriaren 28tik martxoaren 31 bitartean surfeatutako olatuei.

Helburua:

Neguan ere surfa egiten jarraitzeko pizgarri bat izatea txapelketa edo lehiatik haratago.

Antolaketa:

data jakin horretan surfeatutako olatuen argazkiak edo bideoak neguasariak@gmail.com - era bidaltzen dituzte surflariek, hauek Gipuzkoako Surf Federazioaren Facebookean publikatzen dira guztien ikusgai eta 2014ko *Surf Festival*-ean honako sariak banatuko dira:

- Neguko surflariaren saria
- Neguko olatuaren saria
- Neguko tuboaren saria
- Neguko Wipe out-aren saria
- Neguko argazkilariaren saria

Oinarriak:

- Gipuzkoako kostaldean surfeatutako olatuak izan behar dute
- Irudi bakoitza neguasariak@gmail.com -era bidali behar da
- Argazkilariaren, surflariaren eta lekuaren izena jarri behar dira olatua harrapatutako datarekin batera.
- Argazkilariek ziurtatuko dute beraiek direla argazkilariak eta GSFri argazki hauek erabiltzeko baimena emango diote ordain saririk gabe.